


URRUZUNO

literatur lehiaketa

1987

zkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Euskara – Zerbitzua



Kolegioa
Eibarko Hezkuntza Esparrua
993.99 27.43
20600 EIBAR



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
EUSKARA ZERBITZUA

irakaskuntza ertainetako
URRUZUNO
literatur lehiaketa 1987

LAN SARITUEN BILDUMA



Gasteiz 1987
EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA

Lehenengo Argitaraldia: 1987ko Abendua

Ale kopurua: 1.000

© Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Wellington Dukearen kalea, 2 - 01011 Gasteiz

Fotokonposaketa: Oena, S.A. Lasarte (Gipuzkoa)

Inprimatzailea: ITXAROPENA, S.A. - Zarautz (Gipuzkoa)

I.S.B.N.: 84-7542-457-0

Lege Gordailua: S.S. 74/88

AURKIBIDEA

Hitzaurrea

Prosa: A maila.

- Bizitza horrela delako **Nuria Altuna Jauregi** 11
- Sahatsaren azken negarra .
Iñigo Aranburu Aseginolaza . 19
- Igande gau batetako ezta-
baida imaginarioa **Ana Isabel Bastida Loinaz** .. 29
- Hutsune eta itxaropen **Miren García de Cortazar** .. 35
- Genesi **Iñaki Leturia Iurrita** 45

Prosa: B maila

- Gizonak egin eta apurtu
zuena **Idoia Llona Ormaetxe** 53
- Familia baten beharra **Amaia Ormaetxea Irleta** 59
- Amets gaiztoa **Itziar Rios Bernaola** 71
- Itsaso amaigabe hartan **Nagore Urbizu Uribe** 79
- Zu zara nire bizitzaren
arrazoi bakarra **Nerea Zuloaga Martinez** 87

Poesia: A maila

- Niregandik urrun **Nekane Altuna Angiozar** 95
- Merezi al du paradisuak? .. **Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa** 101
- Azken hitzak **Xabier Azkue Ibarbia** 107
- Infernu berotik **Ane Loidi Garitano** 115
- Ilargi gabeko kalea **J. Luis Padrón Plazaola** 121

Poesia: B maila

- Xirularen azken notak / Ez
naiz itzuliko **Nerea Zuloaga Martinez** 131
- Gazte pentsamenduak **Eriz Zumarraga Azkarate** .. 137

HITZAURREA

Hona hemen, eta bigarren urtez, Irakaskuntza Ertainetako Urruzuno Literatur Lehiaketa irabazi duten lanen bilduma, aurkeztutako 301en artean hautatuak izan direnek osatua. Oso harrera ona izan du Lehiaketak gazteen artean, batez ere aurtengogan ikastexeei nolabaiteko aurreaukeraketa egitea eskatzen zitzaizela kontuan hartzen badugu.

Dena dela, badirudi berriro ere aurten poesiako 10 sarietatik hiru hutsik uzteko hartu den erabakiak zerbait adierazten duela. Zer gertatzen da? Garai bateko afizioak modaz pasatu dira? Poesia egitea ez da modernoa? Orain punta-puntan ditugun olerkariak izango al dute jarraipenik? Ba al dugu nolabaiteko eten bat sortuko ote denaren beldur izateko adina arrazoirik?

Galdera gehiegitxo, agian. Denborak eman beharko erantzuna. Hala ere, pentsatzekoa da irakasleen baterako edo besterako zaletasunak honetan eragin handia duela edo, behintzat, izan dezakeela. Datuetara jotzen badugu, aurkeztutako 301 lanetatik 40 besterik ez dira izan poesia sailean. Gainera, datu honi beste ohartxo bat erantsi beharra dago. Poesia oso zentzu zabalean

hartzen da. Sariak erabakitzerakoan, aparte eztabaidatu zituen epaimahaiak bertso-paper moduan aurkeztutakoak eta olerki libre gisakoak.

Bestalde, eta irakasle jakin baten eraginaz kanpo, ikastetxe mailan ere literaturgintzari garrantzia ematen zaiola erakusten du zenbait ikastetxetatik jasotako lanen kopuru eta kalitateak. Aurtengoan bi ikastetxeri aipamen berezia egitea erabaki du epaimahaiak, iaz eta aurten jasotako sariengatik: Urretxuko Garraialde Lizeoa eta Bilboko Gabriel Aresti Institutua, beste hainbat ikastetxe ere oso hurbiletik darraizkielarik.


Irabazle gazteok Europan zeharko bidaia egingo dute, Aste Santuan, dagokien oroigarria eta bidai gastuetarako dirua horretarako antolatuko den ospakizun batean jasotzeaz gain.

Urruzuno Literatur Saria, iaz landare jaioberri, hasi zaigu bere lehen frutuak ematen. Osasunez datorrela dirudi; lerdan gaztetu, emankor heldu eta oparo iraungo duen itxaropenak pizten dizkigu, idazteko abentura zoragarriaren tentazioak kilikatzen bait ditu, orain ere, gure ikasle gazteen barne-gogoak.

EUSKARA ZERBITZUA

PROSA. A maila

B.B.B.ko 3. kurtsoa, UBI,
L.H.ko 2. gradua eta
I.E.E.ko 2. zikloa.



Bizitza horrela delako

Nuria Altuna Jauregi

Almen

ESKORIATZA

Udazkeneko beste egun bat dugu hau. Bai, beste bat. Egun guztiak berdinak bait dira niretzat. Etxeko bazter honetan ez dut hotzik sentitzen, baina hor, kanpoan, laino beltz handi gorrotagarriek estaltzen dute zeru zabal guztia. Eguzkia beraien artetik irteteko ahaleginak egiten dabil, baina lainoek ez dute gupidarik, gorrotoa menperatu da beraietaz eta gudu izugarri bat hasi da lainoen artean. Algodoi beltzezko laino hauek elkar jotzean, trumoi gogor izugarriak sortzen dira eta jaurtitzen dituzten tximista errukigabeek suzko ezpatak dirudite. Herriko teilatu guztiak negar malkoz estaliak ageri dira. Haize azkarraren ziztua entzun dezaket eta zuhaitzen hostoak gora eta behera dabilta hegazean. Erasoaldiaren ondorioz txoriak, beldurrez, beraien kabietara abiatu dira. Ez da txio-txiorik entzuten, kantatzeari utzi bait diote. Ez da bat ere zeru bihozgogor errukigabe horretan hegaldi bat ematera ausartzen. Hau da zeruaren tristea!

Arantza etxeari hautsa kentzen ari da. Betiko kontua! Egunero zatarra pasatzen, jakin arren handik denbora gutxira hauts nazkagarri horretaz jantziko direla berriz altzari zaharrak. Irratian Mikel Laboaren abesti bat entzun dezakegu, etxea pixka bat alaitzen duelarik. Bere sorbaldetan hogeitamazortzi urte gogor daramatzen

emakumea dugu Arantza. Baina ezezagun batek ikusiko balu, hamar bat urte gehiago botako lioke. Aurpegi lehorrean zimurdurak nabari daitezke bizitzan zehar sufritu duenaren adierazgarri. Ezkondu zenetik bere gorputzaz ez da asko arduratzen, jasaten duen gogaitasunetik aldegitiko janarian murgiltzen bait da. Nola aldatu zaren ezagutu zintudan egunetik! Lehenengo aldiz nire aurrean agertu zinenean munduko neskatorik ederrena iruditu zintzaizkidan. Zure urrezko ile kizkurtua, begi urdin-abar eta ezpain txiki eta goxoak, musuan armonikoki konbinatzen zitzaizkizun. Zure mugimendu arinak, uso baten hegaldiarekin konpara zitezkeen. Dena zen alaitasuna zure bihotzean. Hogeita-bi urte polit bota nizkizun eta oraindik konturatu gabe zeunden bizitzaren laztasunaz. Dena larrosa kolorez ikusten zenuen. Ametsezko mundu batetan bizi zinen eta zure bihotz hobengabe eta zintzoan mutil legegizon bizkar bat zenuen. Neska gizagaixoa! Nolako gogorra izan zen handik bost urtetara amets zoragarri hartatik iratzartzea eta langile apal batekin ezkontzea. Baina ederre-rena nirekin interesatu zinela izan zen. Zure begi lirainek niri begiratu zidaten eta ez nire kideei. Ni aukeratu ninduzun aterkin guzti haietatik eta erostean nire bizitza aldatu zenuen, denda zahar eta zikin hartatik atera ninduzun eta horren ordainez ez zintudala inoiz utziko, ez nintzela sekula hondatuko zin egin nuen.

Ene Jainkoa! Eguerdia eta oraindik erosketak egin gabe! Oihukatu du Arantzak bera inguratzen duen bakardade zitala eta isiltasun sarkaria aupakatuz. Iazko Galerias-eko merkealdietan erositako gabardina beltzaz gorputz osoa estali, erosketetarako boltsa atariko armairutik hartu, ni, jasan ditudan eurite guztien ondorioz burdinezko beso meehak herdoiltzen hasiak ditudan aterkin urtetsua euritakontzitik samurki atera, eta irratia pizturik utzirik, kalera. Kaka zaharra! Gaur ere blai eginda bueltatuko naiz. Gaur ere lainoen malko trufariak zirisartuko naute. Eta noski Arantza ez da ezkotuko. Bera lasaitasun osoz joango da kaletik nirekin arduratu gabe. Hau da gizakien berekoikeria!

Okindegiruntz abiatu gara. Kanean haizea da nagusi eta esku bero hauek ez balidate gogor eutsiko, haizeak eramango ninduke. Gaur haserre bizian daude lainoak eta inoiz baino gogorrago jotzen dute euri tantek nire gainean. Hau ez da bat ere gogokoa, nahiago izaten dut udaberriko lanbroaren kiki-kili atsegina.

Ogi egin berriaren usaina nabari dezaket. Etxekoandre maiteak euritakontzian sartu nau. Bertan haurtzaroko lagun batekin topo egin dut. Ni jaio nintzen lantegi bereko aterkin batekin hain zuzen. Lagunak eta biok aspaldiko kontuak gogoratu ditugu, elkarrekin egon garen une laburrean. —Barra bat, mesedez. —Eskatu dio Arantzak. Okina, barra eman ondoren, noiz ordainduko dion itxaroten gelditu da. Arantzak berriz, gabardinaren sakelean eskua sartu ondoren dirurik gainean ez zeramala konturatzean, desitxaroz praktako sakeleruntz eramanez eskuinteko eskua, baina alferrik. Bere barnea urduritasunak gainditu du, baina kanporantz lasaitasuna, baretasuna adierazten ahaleginduz, bihar ordainduko diola esan dio okinari. Azken honek, bere begi txiki beltzetan mesfidantza nabari daitekeen arren, lasai egoteko erantzun dio.

Etxerantz gentozela herriko sendagilearen emazte berritsua- rekin gurutzatu gara eta Arantzak derrigorrak eragindako agur hotz bat eskaini dio. Ana Marik agurra hoztasun berberarekin bueltatu dio.

Tan... tan... ordu biak jo dute amonak oparitutako erloju zaharrean. Egunero bezala, bakarrik bazkaltzeko ordua. Atzo hondartutako makarroiak berotu, haragi xerra olio gutxirekin erre eta bazkaria prest. Zoko honetatik jangela erdia bakarrik ikusten dudanez, ez dut bertan dagoen egurrezko mahaia ikusten. Baina segurki momentu honetan xerra jaten ibiliko da. Aiztoak, platerean jotzean ateratzen duen zarata entzun dezaket. Noizean behin urez erdiraino beteriko ontzia mahaitik jaikitzen du bere ahora eramanez eta ura edatean ateratzen dituen hots fin eta

bereziak entzun ditzaket. Bazkal ondoren armairuko kaxoiruntz abiatu da eta poliki-poliki, bertan zerbait misteriosua eta debekatua balego bezala, zabaldu du. Bere eskuek pattar botila erdi huts bat, Arantzarentzat erdi beterik dagoen bat, atera dute kaxoi barnetik eta eguna alaituko dion pattar kopatxo isilean edan du.


Arratsaldean zer egingo eta lehengo astean hasi zuen mutikoaren jertse gorri sendoa egiten jarraitu du. Nork esango zukeen orain dela hamabost urte gure andereño liskarti eta jaizaleak udazkeneko arratsalde bustietan puntu egiten amaituko zuela.

Laster etorriko zaizkizu senarra eta semea. Mikeltxok zortzi urte ditu. Bere begiek bi izar urdin dirudite, masailak orezta panpox txikiekin beterik ditu eta bere ileak artile hori goxoa dirudi. Hau da etxea alaitzen, argizatzen duena eta Arantza maiteari hurrengo egunerako indarra ematen diona.

Senarra aldiz sentigabe eta geldoa du, Arantzak senar hobe eta amoltsuagoa merezi du. Baina baliteke nik Arantzaren senarrarekiko dudan eritzi hau bekaizkeriak sortua izatea, etxeokandrea kuttunak bera eta ez ni maitatzearen bekaizkeriak.

Patxi akituak, lantegitik etortzen denean, musu hotz eta urrun bat emango dio emazteari eta telebista lauzangarria, nardagarria piztuko du «Gaur egun» ikusteko. Gehiago axola zaizkio kanpo arazo gogaikarriak bere etxeoko gorabeherak baino. Beti iruditu zait pixka bat obszenoa sentikizun sakonak hitzez adieraztea, baina elkar maite duten bi pertsonen arteko gailurra, jomuga, bakoitzak besteari bere gauza pertsonalak kontatzen dizkion momentua da eta hau ez da inoiz gertatzen Arantxa eta Patxiren artean. Bakoitza bere munduan murgiltzen da beti, ez dute inoiz elkarrizketa luze, lasai eta sakonik edukitzen eta zorionak ez duenez isiltasunik soportatzen, aspaldi zela aldeginaren etxe honetatik.

Eguzkia, lainoekin burukatu ondoren aunaturik, mendi erraldoien babesean lotara joango denean, gau beltzak egunari gerla irabazi ondoren, oheratuko da nire maitea. Eta bihar beste egun monotono, arrunt, doinubakar bat jaioko da.



Sahatsaren azken negarra

Iñigo Aranburu Aseginolaza
Garaialde Lizeoa
URRETXU

Beharbada goizegi etorri naiz, zitarako ordu bete falta bait da oraindik, baina bera lehenago ere etorriko da beharbada eta nahiago izan dut badaezpada goiz heltzea paseotxo bat ematen dudan bitartean. Horrela gainera... Han! Bai! Hantxe ikusten ditut berarekin elkartuko naizen parkearen zuhaitzak! Bai... benetan oso parke ederra da hura, bere banku zuriekin eta udazkenak gorritz jantziz apaintzen dituen urki, gaztainondo, sahats eta hainbat zuhaitzez osaturiko basotxoekin. Gainera, ni berarekin elkartuko naizen bankuaren aurrean lakutxo bat dago, luma zuri-dun zisne horiek egoten direnekoa eta nenufareek ur garden eta bareetan, geldirik, mugitu gabe, flotatzen duten horietakoa. Gaurko egun honetan parkean halako alaitasun eta bizitasun berezi bat nabari da, udazkeneko eguzki epel honen ondorioz seguraski; zenbat eskertzen ditudan nire gorputzaren zati bakoitzera sentzazio epel hori eramaten duten eguzki izpi goxo hauek! Txorritxoek, antza, sentzazio berbera dute, etengabe txioka ari bait dira, eguzkiari bere izpiak bidaltzeagatik eskerrak emango balio-te bezala: atzeko pago hartan, kardantxiloen txioka alaia entzun dezaket, honuntzago dagoen beste urki horretan... ez dakit... txepetxa ote? ala txantxangorria da? bai, txantxangorria dela uste

dut; atzean uzten ari naizen sahots horretatik berriz, urretxindorren kantu goxoaren doinuak heltzen zaizkit... Badirudi negua ez dela inoiz helduko, eta bai ordea, udaberrira itzuliko garela... Bai, dudarik gabe, gaurko eguna egun aparta da, zoragarria benetan, eta gainera... gainera berarekin elkartu behar naiz!!... ... Mmm...! eguzki izpi goxo hauek zorionez lehertzen ari den aurpegi irrifartsua laztantzen... Eskerrikasko, Jauna!! Nahiz eta ni nahiko eszeptikoa naizen Jainkoaren asunto horretan, gaur zorion guzti honegatik norbaiti eskerrak eman beharrean nago... hain asetua sentitzen naiz, hain bizitzaz bete, hain... ez dakit nola espresatu... baina eskerrikasko!! Oraindik ez dut elkartu garen bankua ikusten, sahots baten adar hostotsuek estaliriko txoko apartatu batetan bait dago. Berezi proposatu nion txoko hori, bertara joaten bait nintzen bera ezagutu eta nire bizitzaren hutsunea bete zidan arte sentitzen nuen bakardade izugarriaz kontsolatzera. Garai haietan (urteak pasa direla dirudi eta ez dira egun batzu besterik igaro), sahots hori nuen adiskide bakar-bakarra; zuhaitz honek eskeintzen zidan pertsonak ukatzen zidaten laguntasuna, adiskidetz, ... maitasuna; eta nik hitzegiten nionean berak ahots zoragarri batekin erantzuten zidan, haizeak adar artetik igarotzean egiten duen antzeko soinuarekin... Beragatik ez balitz jadanik zoratuta nengo keela uste dut; izan ere hainbeste zor diot... ia nire bihotzeko neskatxa maiteari bezainbeste. Bankuan egongo al da nire kuttuna? hobe dut badaezpada arinago joatea, beharbada aspaldidanik egongo bait da han, nire zain (dena den oraindik nahiko denbora gelditzen dela uste dut..., bai, orduerdi gelditzen da oraindik); egia esan, nahiago dut bankua hutsik aurkitzea, horrela nik itxaron diezaiodan berari eta ez alderantziz, nahiz eta horrela... Azkenean! Han dago nire sahots hostotsua! eta bere atzean, elkartuko garen banku zuria! Hemendik ez dut ezer nabaritzen oraindik. Han egongo al da? Haruntz hurbiltzen noan heinean ezin dut galerazi nire oinak azkarrago ibil daitezen; badirudi biziagotuz bait doaz; taupada hotsen erritmo honek nire oinen abiadura markatzen dute, galera batetan danbo-

rrak arraunlariei beren erritmoa markatzen dien bezala. Hogei metro eskas falta dira bankura heltzeko. hor egongo al da? Hamar metro besterik falta ez direnean konturatzen naiz nahiago dudala bera han aurkitzea... berdin zait bi ordu itxaron arazi badiot ere!... hainbeste maite dut... hor egon dadila, mesedez!! Jainko maitea, hemen egongo al da?... bankuak bere oholen zurtasun osoa agertzen dit. Ez dago inor. Hutsik dago... Orduan konturatzen naiz arnasestuka nabilela, izerditan nagoela, azken hamabost metroak abiada bizian egin ditudala, inoiz baino azkarrago, neure bizitza arriskuan balego bezala... Ez dakit zer gertatu zaidan, guztiz galdua sentitzen naiz... Hobe dut lasaitzea eta banku bedeinkatu honetan arnasa lasai hartzea; bankuan eserita, muskulo guztiak lasaituta, berriz ere eguzkiaren izpi epelak nabari ditut nire gorputzean zehar eta txoritxoaren txioka alai eta goxoa berriz ere nire entzumenera heltzen dira; bihotzen taupadak berriz ere beren erritmo normala berreskuratuz doaz eta nire onera itzultzen ari naizela nabari dut (Zer ordu da? ...oraindik ordu laurden falta da berekin gelditu naizen ordurako: ordu laurden, hamabost minutu,... 900 segundu. Hainbeste segundu, segundu asko dira. Gehiegi beharbada. Urteak irudituko zaizkit). Baina... zer gertatu zait bapatean zoromoduan laisterka hasteko, neure kontrola galtzeko?... ez dakit... Bere presentzi posibleak bultzatu al nau? Bai, horrek izan behar du, ez dakit bestela ze beste arrazoi... eta orduan... hainbeste maite al dut? Uste nuena baino gehiago maite al dut? Baina... posible al da horrenbeste maitatzea? Ene Jainkoa, posible al da?... Bai... bai! Posible da... posible da.

Oraintxe konturatzen naiz zenbat maite zaitudan ene bihotzeko kuttun hori; oraintxe konturatu naiz zu gabe ni ez naizela ezer, eta galduko bazintut, nik... nik... beno... ez dakit zer egingo nukeen. Zu dena zara niretzat, zurengandik at ez dago ezer niretzat benetan axola duenik, ez amarik, ezta aitarik, ezta anai-arrebarik, ezta adiskiderik, ezta lagunurkorik,... zuk bakarrik

osatzen duzu nire unibertsoa, zuk bakarrik; beste guztiak gorrotatzen ditudala iruditzen zait, zuretzat bakarrik gordetzen dudala ene bihotza eskeintzeko gai den maitasun eta amodio guztia, zuretzat bakar-bakarrik, ez beste inorentzat; zu zara nere jainkosa bakarra eta ni zure zerbitzari apala; ez dizut inoiz hutsegingo, beti zure ondoan izango nauzu (Zer ordu da? baina... oraindik sei minutu falta al dira? Hau ezinegona!); ez gara inoiz elkarrengandik banatuko eta biok, elkarrekin, bidai zoragarriak egingo ditugu eta ez dugu txoko bat bera ere ikusi gabe utziko, eta hondartzan eskutik helduta eseriko gara eta han, horizontean, ikusiko dugu nola itsasoak eguzki gorria astiro irensten duen eta ilargi bete zuria egotzi, eta han egongo gau osoan, izar amaigabeak kontatzen, olatuak lehertzean bakarrik hausten den bakardadearen ixiltasun hartaz gozatzen eta amodioz beteriko begiradak gurutzatzen, ... maitatzen; eta eguna heltzen denean, berriz ere gauari itxarongo diogu (Oraindik hiru minutu falta al dira? ez dut ba ordularia geldirik izango...); eta gure maitasun honen garra ez da inoiz, sekula itzaliko eta nahiz haize boladarik bortitzenak, nahiz itsas olaturik izugarrienak, nahiz jainkorik beldurgarrienak beren indar guztiekin ahalegindu, geure maitasunak hortxe jarraituko du, haseran bezala, gure bizitzari argitasun eta zentzu bat emanaz, baita heriotza berari ere, ziur bait nago hil eta ondoren, gorpu hotzak besterik ez garenean, hezur zurbilak besterik ez garenean, hauts eskukada bat baino ez garenean, ... maitale izango garela (Zenbat falta ote da ordurako?... minutu bat! Oraindik minutu guzti bat itxaron behar al dut bere segundu eta guzti?!); bai, heriotzak berak ere ezin izango du gure maitasunaren gar hori itzali, garaitezina bait da eta horrela jarraituko du eternitate guztian eta beti oraingo intentsitate berarekin (... hogeitamar segundu falta dira oraindik), eta orain, ene bihotzeko kuttuna, inork inor maitatu izan ez duen bezala eta maitatuko ez duen bezala maite zaitut, maitasun honen intentsitateak, bere iraupenak bezalaxe, mugarik ez duelako (... hamabost segundu oraindik). Ezin dut ulertu nola bihotz batek gurea adinako maitasu-


na gorde dezakeen... hainbeste maite zaitudan, hainbeste...! Geure amodioak ezin du mundu honetakoa izan, geurea areago doan zerbait da, askea, mugarik gabea... (zortzi segundu oraindik). Edozein momentutan neure begien aurrean izango zaitut eta orduan... (segundu bat!). MAITE ZAITUT!!! Entzuten al didazu? Maite zaitut!!! (segundu bat igaro da!). Zergatik ez zara behingoz azaltzen? Hemen hainbeste denbora zain eduki ondoren... gehiago sufri arazi behar al didazu? Ene pairamenduaren berri bazenu etengabe igarotzen ari diren segundu hauetan...! (berrogei segundu pasa dira!). Baina... zertan ari naiz? Oraindik ez da minutu bat igaro eta. Ez dago larritzeko arrazoirik; emakumeak beti dira emakume eta zu inor baino gehiago; zu behintzat lasai egon zaitez, nik itxarongo zaituz eta; seguraski apaintzeak uste baino denbora gehiago eraman dizu baina jadanik bidean egongo zara, ezta baietz? Eskertzen dizut niregatik hartzen duzun ardura, baina eskertuko nizuke bereziki apaindu gabe etorriko bazina, horrela lehenago etorri al bazenu (...bi minutu pasa dira jadanik! gainera zure berezko edertasuna askoz ederragoa da pintura eta hautsez estalirik lortzen duzuna baino; mejunje horiek ez dute zure aurpegi xarmant eta lirain hori ezkutatu besterik egiten, zure bertute eta garbitasuna isladatzen duen aurpegi hori, gure maitasunaren errelejo bizia den aurpegi hori (... jadanik hiru minutu pasa dira. Bai azkar!!). Etortzen zarenean hitzegingo dugu horretaz, orduan munduko asti guztia izango bait dugu guretzat bakarrik eta hainbeste gauza esan behar dizkizut...! hainbeste ilusio eta asmo agertu behar dizkizut...! (Zer ordu da?... bost minutu pasa al dira?! Honen laster?). Etortzen zaren momentu beretik (zeren zu etorriko zara, ezta baietz?) hasi behar dugu itxaropenez beterik azaltzen zaigun geroari buruz planak egiten; nik lehenengo egingo nukeena zera da... beno, ez, bidaia gerorako utziko dugu; hori baino lehen beharbada erosiko bagenu... ezta, etxebizitzaren asuntua ongi pentsatzekoa da eta ez horrela, bat batean erabakitzekoa (gainera osatzen dugun familiarren araberakoa litzateke hori); beraz, lehenengo egin genezakeena

zera da... ba... ez dakit zer... Kaka zaharra!! Zure laguntza behar dut, non arraio sartu zara? (Zenbat denbora iragan da? Nola...! Hamabost minutu jadanik?!). Nahasturik aurkitzen naiz; lehen horren argiak nituen gauzak eta orain... Hobe dut lasaitzea, ez dago eta beldurtzeko arrazoirik: seguraski bidean zerbait ahaztu zaizu eta etxera itzultzeko beharrean ikusi zara edo... beharbada... ordularia gaizki izango duzu, edo bestela... ez dakit... edozer gauza izan daiteke, zer arraio!! Bai, memo bat bezala portatzen ari naiz; ez dago beldurtzeko arrazoirik; nik zu maite eta zuk... .. ni ere... baietz uste dut... ez dakit... Jainko maitea!!! Etor zaitez lehenbaitlehen eta esaidazu baietz, maite nauzula... arren!!... baina, zer da hau? malko bat al da masailetik irristatzen ari den tantan hori? eta neure barnean entzuten den etengabeko mailu hots hori... bihotz taupadak al dira?... bai, hura nire begi lausotuen malko bat da eta mailu hots hori, nire bihotz gizarajoaren taupadak; baina ez dira lehengoak bezalakoak, zugaran pentsatzeak ematen zidan alaitasun eta poztasunak sorturiko malko eta taupadak, ez, beste zerbaitek sortuak dira: ez dakit... beharbada zalantzak, beldurrak,... ikarak... Baina zeri ikara? (Zer ordu da? Putza!! Orratz madarikatu hauek jadanik orduerdi aurreratu dira!). Non demontre sartu ote da bera?... inkonszienteki, jezarririk nagoen bankuan biribiltzen naiz, beldurrez, arriskuren bat somatuko banu bezala; babesgabe sentitzen naiz... Orainarte ez naiz konturatu baina lehengo eguzki epela laino beltzen artean ezkutatu da eta txorien soinu alai haiek ez dira jadanik entzuten iparraldetik datorren haize hotzaren parean. Laster eguzkiaren azken izpia lainoek irentsiko dute, haizeak txorien doinu alaiak guztiz irentsi dituen bezala; zisneak, lakuaren ur hotzak utzi eta beren gordelekuetan babestu dira eta nenufareak, haizeak mugituriko lakuko uretan kulunka dabilta. Lakuan euri tantanen zipristinak nabari dira, geroz eta ugariagoak. Haizeak eraginda sahasaren hostoak, nire sahasaren hostoak erortzen hasi dira; malkoak dirudite, haizearen soinuak adarren artetik negar garratza dirudien bezala. Zergatik ez da behingoz azaltzen? Non sartu ote

da? Ez al du ulertzen maite dudala, pasioz eta aldi berean xarmanki maite dudala? Ez al du ulertzen dena eskeintzeko prest nagoela, baita bizitza bera ere ala nahi badu?... Ez, ez du ulertzen. Ez du ulertzen bera bihurtu dela bizitzen jarraitzeko dudan arrazoi bakarra, berari eman bait diot nere maitasun guztia. Hala ere, nahiz eta berak ni hementxe abandonaturik uzten nauen, nire bihotza eta ni neu beti berarekin eramango ditu eta banku honetan, zaparrada honen azpian gelditzen dena ez da gizon haren hondarra besterik izango (Zenbat denbora igaro ote da? ez dakit... ez du merezi ordularia begiratzeak, edozein kasutan ere denbora gehiegi izango bait da...). Jadanik gaua da, gau oso iluna; alferrik diraut ilargiaren argitasun zurbila bilatzen, ilargirik gabeko gau beltz bat bait da gaurkoa. Izarrak ere ikustezinak dira hodeien atzean. Gelditzen al da itxaropenarako lekurik? Beharbada oraindik etorriko da eta orduan jasanenezko sufrimendu hau ez da gero ahazturik geldituko den oroitzapen txar bat besterik izango... beharbada hona etortzea galerazi dion zerbait gertatu zaio, ustekaberen bat edo... EZ!! Horixe egin duzu orainarte, zeure burua engainatu, besterik ez! Zuk ongi badakizu bera ez dela inoiz etorriko!! Ez, ez, ezinezkoa da hori, ixil zaitez!!... Zuk ongi badakizu bere solasaldien jostailu bat besterik ez zarela izan eta orain bera farrezka ariko dela zu hemen negar bizian zauden bitartean!!... Ixil zaitez, arren, ixildu!!... Zuk badakizu eta beti jakin izan duzu berak ez zaituela inoiz maite izan eta ez zaituela inoiz maitatuko!!... Bai, bai, bai... beti jakin izan dut guzti hori baina ezin nuen onartu! Nik maite dut, ez al duzu ulertzen, kontzientzia nazkagarri hori? Maite dut!! Beharbada puta zikin hori beste batekin larru joka arituko da orain ohe bero eta goxo batetan edo eta beharbada bere laguntxoei arituko zaie kontatzen zein ederki engainatu duen gizarajo bat eta nola orain gizarajo hori amets baten zai dagoen euripean, hezurretaraino blai eginda, hotzez hiltzen... eta denak farre egingo dute, mundu guztiak farre egingo du... baina nik... nik maite dut!! MAITE DUT!!!»

...eta bankutik jeiki zen, poliki-poliki eta bere sahasari begira jarri zitzaion eta horrela egon zen instant batzu, bere gainean tximistek gau ilun hura moztu zuten bitartean eta trumoiak etengabe gauaren ixiltasuna hausten zuten bitartean; begietatik zerizkion malkoak aurpegitik irristatzen zitzaizkion euri tantanekin nahasten ziren; bapatean bere ahotik oihu ikaragarri bat irten zen, ez gizakiarena eta ez animaliaarena zen oihu bat, trumoiak beraiek ere estali ezin izan zuten oihu beldurgarri bat, zoramen handienak bakarrik sortarazi zezakeen oihu izugarri bat... eta horrela, oihuka, saltoka, besoak bortizki astinduz herio dantza itzel batetan, basoruntz zuzendu zen eta azkenean, gau beltz eta hotz hark zuhaitzen artetik irentsi zuen...

Hurrengo egunean gorpua aurkitu zutenek ziotenez, ez zuten inoiz bereak bezalako begirik ikusi: oso irekiak omen zituen, bekainak oso altxatuak... ero baten begiak omen ziren haiek... eta aho zabal hark hortz guztiak keinu ikaragarri batetan erakusten omen zituen, farrearen eta ikararik handienaren arteko keinu batetan... Gizarajoa! Azkenean bere bakardade hark guztiz erotu zuen; bakardade hartatik ihes egiteko asmatu zuen izaki irreal hura zen gelditzen zitzaion itxaropen bakarra; bai, bere bihotzeko kuttun hura bere maitasun eta amodio osoa eskeini zion neska hura, ilusio bat besterik ez zen, bakardade handiengan igarotako bizitza baten ondorioz, bere irudimenean bakarrik garatuz joan zen ilusio bat besterik ez... baina aldi berean hainbeste zen... Izaki berri honi itxarotera joan zen parke hartara, banku hartara... baina ez zen inoiz azaldu. Inork ez du bere eromenaren arrazoia jakingo eta inork ere ez du bere hutsunea nabaritu, inork... sahas batek ezik; zuhaitz hura bakarrik izan zen bere bizitzaren eta beraz, bere sufrimenduaren lekuko, parke batetako banku zuri baten ondoan dagoen sahas bat, hurrengo udaberrian loratu ez dena, bere adarrek biluzik jarraituko bait dute beste zuhaitzenak hosto eta lore ederrez jaten diren bitartean, gau ilun eta euritsu hartan, bere azken hostoak erortzean, sahasak azkenengo aldiz egin bait zuen negar.



Igande gau batetako eztabaida imaginarioa

Ana Isabel Bastida Loinaz
Batxilergo Institutua
AZPEITIA

Honela nola idatziko dut ba? Ez didazu uzten bakean lanean ari naizen bitartean. Zeuk diozu dena. Idazteko esaten didazu eta gero ezin duzu hori jasan. Honek ez du zentzurik.

Desinteresaturik zaudenean bakarrik aritu beharko naiz. Zu konturatu gabe, bestela nireak egin du. Baina hala ere, ez didazu astirik ematen dena behar bezala idazteko, areago, bukatzen dudanean irakurtzeko ematen dizut eta gehienetan ez zaizu atsegin. Atsegin bazaizu berriz, beti ere akatsak azpimarratuz, ez da denbora asko igarotzen zeharo nazkagarria dela esaten didazun arte. Hori behin irakurrita. Gehiagotan irakurtzen baduzu... ez noa esatera.

Baina, ulertezina ez da zurea bakarrik gertatzen. Errua neurea da, zuri irakurtzen uzteagatik. Errezena ez uztea izango litzateke, baina hori ezinezkoa egiten zait orain behintzat. Neuk ez dut jokabide hori ulertzen.

Alde batetik mespreziatzen zaitut zure kritikagatik, baina bestalde, uste dut zureganako aprezioa ere handia izango dela, bestela, ez nizuke zuri irakurtzeko esango. Xelebrea da, ez? Ba orain berdin zait. Ez dut arazo hori sakontzen hasteko gogorik.

Zurekin hizketatzeagatik haria galdu dut. Zuri berdin zaizu, ni galdu edo ez, zeu galtzen ez zaren bitartean.

Badakizu?, batzutan zutaz zeharo ahazten naiz. Gero berriro zutaz gogoratzean, edo, zurekin topo egitean, konturatzen naiz zu gabe igarotako denbora hori zein atsegin izan den. Ulertzen duzu jokaera hori?

Adizu, gauza bat: ni zuri dena esaten ari naiz eta zuk niri ez al didazu ezer kontatu behar? Zer pentsatzen duzu nitaz? Zer sentitzen duzu? Zer da nigan gehien atsegin edo gorrotatzen duzuna? Edo zer dakit nik?

Hitzik ere ez. Betikoa. Gutxienez badakit behintzat, zure ahotsa nolakoa den. Ez zuri entzunda, noski, neurea entzunda baizik.

Zutaz badakit zenbait gauza, nahiz eta hori ez izan zure nahia. Baina, ezin duzu naturaren aurka irabazi, kasu honetan.

Gizona izan bazina, hitz hauek denak, gauean emazteak senarrari botatzen dion sermoia emango lukete. Baina ez, ez da hau senar-emazteen arteko eztabaida.

Imajinatzen duzu? Senar-emazteak izan bagina, honelako saioak eduki eta, hala ere, elkarrekin ibili behar. Gosaldu elkarrekin, eguna ere biok batera, lagunekin ere bai eta lotara, zu nirekin eta ni zurekin.

Baina, beti ez dira horrelako elkarrizketa, «elkarrizketa» hartzak izaten. Batzutan, badakit gauza ederragoak esaten ezta? Bai noski. Zu ere ados zaude. Antzematen zaizu. Zeuk ere badakizu hobeto erantzuten.

Berriro ere orratzak direkzioa aldatu du eta nazka ematen didazu. Baina, ohitzen ari naiz zentzazio horretara. Laister, zeharo arrunta egingo zait egoera hori. Orduan, gustoa ematea izango da sentsazio arraroa.

Denbora alferrik galtzen ari naiz zurekin. Baina ez da erraza zuregandik libratzea. Ez dut suizida bilakatu nahi. Hori baino bakezaleagoa naiz.

Agian, dena ez da denbora alferrik galtzea izango. Koxka bat dago. Denbora hori beste era batetara agortuko banu zurekin, ziur aski estimulo gehiago jasoko nuke. Horixe da arazoa, edo koxka baino handiagoa dena. Nola atera probetxua hortik?

Zuk ez duzu erantzungo noski. Gainera, galdera horrek ez du erantzunik gu bion artean oraingoz. Nik jakin izan banu, zuk ere bai, eta alderantziz. Egunen batean lortzen baduzu, eta nitaz gogoratzen bazara, esaidazu. Nik orain ez zaitut behartuko, gogorkeriak ez bait du laguntzen erantzun egokiak ematen.

Gustatu zaizu esaldi hori, ez?

Banekien bai nik. Hala ere, beti daukat zerbait esateko. Ez da inoiz bukatzen. Zer esanik ez dudanean ez dudalako, eta esatekorik dudanean dudalako. Beti horrela jarraitzen du.

Zergatik ez duzu jartzen zure gustoko gai bat? Ezta. Hori ere nik egin behar. Zu beti, moderatzaile edo kritikari bezala. Nahikoa da.

Baina ez duzu ulertzen azken saio horren gainera ni nagoe-la? Dudan jartzen duzu? Beno, zuk jarraitu hori pentsatzen. Nik bitartean pelikula bat montatuko dut, errealitate honetatik aparte. Egoera honekin zerikusirik ez duen pelikula bat. Edo behintzat, ni ez nadila konturatu erlazioa duenik. Baina errealitate honetatik at dagoen istorio bat bada, ezingo duzu ulertu, abstrakzioan, zerbait konkretuak ez bait du lekurik. Zuk hemendik kanpo, ez duzu ezer ulertzen. Orduan zuri gauza konkretu bat kontatzeak ez du zentzurik.

Zergatik zabilta logikaren bila?

Ez dakit zergatik den, agian, denbora honetan asko kontaktatu dugulako edo zer, baina, gero eta urrunago sentitzen zaitut.

Askotan gertatu ohi da, gehiegikeriatik gero hutsera iristea. Ez da hau nik espero nuena, edo, hobeki esanda, neri komeni zaidana.

Zure beharra dut, zuk nerea ez izan arren. Badakit entzuten didazula, baina horrekin bakarrik ez dut nahikoa. Orain zugar gorrotatzen dudan akzio sarkastiko hori behar dut.


Zergatik orain desio hori? Asperturik nagoelako eta norbaitekin solasaldi bat izan nahi dudalako, lehen alderantzizkoa pentsatu arren. Horrela da, ez du beste esplikaziorik.

Biok batera gaudenean, ni beti jarraituko natzaizu hizketan. Lehen ere esan dizut, beti modu horretan funtzionatzen duela.

Zure jarrera ulertzen dut, hala ere behingoz amore eman zenezake. Behingoz.

Badakit nirekin zaudela, baina ia ez da antzematen. Lotsaturik zaudela dirudi; atsekabeturik, behar bada.

Agian nirekoia izango naiz, orain nolabait nireganatzea eskatzean, baina beti horrela izanaz ezagutu izan nauzu. Ez zara orain akats hori konpontzen hasiko. Bestela, ni ere burugogorke-rian hasiko naiz, eta zure beharra deuseztatuko dut. Batzuetan zaila izan arren, nola edo hala lortuko dut. Nik ere ez dut etsiko. Sakontzera sartu ezkeror, ezinezkoa da, golpe batez egiten ez badut behintzat, baina azaletik jokatu ezkeror, nahikoa dut nire pentsamendua beste aktibitate batetan murgiltzea, zutaz denbora batez ahazteko, denbora labur batez. Betirako inoiz ere ez. Inoiz ere ez.



Hutsune eta itxaropen

Miren García de Cortazar
Barandiaran Lizeoa
DONOSTIA

Gaur goizean zortziretan jeiki naiz, ikastolara joateko asmoz. Egunero bezala neure burua ispiluan begiratu dudanean, arraroa den zerbait sumatu dut neure barrenean. Zirrara antzeko zerbait, ispiluak nire imagina bere gorputz gardenean erreflexatu duenean.

Ispiluak ni naizen bezalaxe erreflexatzen al nau? edo nik neure burua ikusi nahi dudan bezala?

Ama agurtu dut, eta galdera hauek arrazoituko dituen erantzun baten bila irten naiz kalera.

Ikastolan, galdera hauen erantzunei buruz ezer gutxi aurkituko nuela pentsatuz, erantzuna nire kontuz aurkitzea erabaki eta ikastolarako ez den bidea hartu dut.

Berebil eta etxe garaien arteko kale uniformeetan zehar ordu pare batez ibili ondoren, behin ere ikusi ez dudan plaza batetara heldu naiz. Plaza hau ispiluz inguraturik dago. Bakarrik aurkitzen naiz, ez dut inor ere inguruan eta ispiluak nitaz farrez ari direla dirudite. Nire burua ispiluetan begiratzeak beldur ematen dit, beraz lurrera begira nago. Oso lotsaturik nago, plaza honetatik

irteteko bidea aurkitu nahi dut, baina plaza honen sarrerako atea ispilu bihurtu da, eta sarrera eta irteerarik gabeko ispiluzko kutxa baten itxura hartu du.

Begiak isten ditut, barruan dudan beldurra uxatzeko asmoz, baina ezinezkoa egiten zait. Begiak isten ditudanean, irekirik ditudanean baino beldur gehiago sentitzen dut.

Garunak ispiluen imajinak bakarrik bidaltzen dizkit. Malko batzuk begietatik behera irristatzen zaizkit masailak zeharkatuz, eta piskanaka putzu ttipi bat sortuz doaz.

Zergatik hartu ote dut bide madarikatu hau? Ikastolara joan izan banintz, ez nintzatekeen horrela beldurturik egongo.

Zer esango du nire amak ikastolatik bueltatzen ez naizela ikusten duenean? Eta hemendik behin ere irteterik lortuko ez banu?

Nekaturik nago, ezin dut egoera hau denbora gehiagoz jasan, eskuak hertsu eta aurrean dudan ispilua zartakatzen hasten naiz, ezinezkoa da, ispilu hau suntsi ezina izatea ez da posible.

Nire gorputzaren pisua jasan ezinik lurrera erortzen naiz, konorterik gabe nago. Ez dut ezer ere sentitzen, nire sentimenak lo daude.

Ordu pare batez egon naiz konorterik gabe, hemen denak berdin jarraitzen du, baina kanpoan gaua izango da, eta gurasoak nire bila ibiliko dira.

Loaren pisuak betazalak begien gainean erortzen uzten dizkit, ez dut betazalak altxa eta goian eusteko indarrik.

Lauzpabost orduz egin dut lo, orain lasaiago nago, baina beldurraren arimak nire barrenean jarraitzen du, gosearenak laguntzen diolarik.

Asperturik nago, eta asperraldi honi amaiera emateko abesten hasteko ahaleginak egin ditut, baina beldurrak ez dio ahotsari doinua sortzeko behar duen bidea hartzen uzten. Mututurik nago, beldurra nire gorputza eta adimenaren jabe da eta bera suntsitzea lortu behar dut, baina nola suntsi daiteke, beldurraren erpeak hain boteretsuak badira?

Ispiluek lerdin eta isilik jarraitzen dute ezer ere gertatuko ez balitz bezala, ni berriz desberdina den zerbait gertatzeko irrikitzen nago.

Isiltasunak eta kanpoan edo inguruan gertatzen ari denaren ezagupen ezak edonor ero bihurtu dezake eta.

Bapatean, ispiluetako batek argazkiak ateratzeko makina batek botatzen duen bezalako argi bitxi bat bota du eta ni inguratzen ninduten ispilu denak desagertu dira.

Kalean nago, korrika hasi naiz, inor ni harrapatzeko gai izango ez den abiadura batean. Nire etxea dakust.

Atera heldu bezain laister txirrina jo dut eta amak ireki dit atea. Amak ikusi bezain laister izugarrizko besarkada eman dit, baina baita izugarrizko errieta ere.

Ni, gertatu zaidan gertakaria kontatzen hasi natzaio eta berak platerak bezain begi irekiekin begiratzen dit. Ez dit sinesten esaten ari natzaionaren txintik ere, hala dirudi behintzat.

Afaldu bezain laister oheratu egin naiz, oso nekaturik nengo eta.

Ez dut aita ikusteko astirik ere izan. Hamaikak aldera etorri da aita, eta amarekin eztabaidan ari zela entzun dut.

Zergatik ari ote dira eztabaidan?

Gaur asteartea da, eguraldi oso ona egiten du, azkar azkar jantzi eta gosaltzera noa. Gosaltzen ari naizen bitartean amak errukiz begiratzen didala iruditzen zait. Samindurik dirudi. Zer gertatzen den galdetzen diot, baina ez dit erantzuten.

Ikastolatik itzuli naizenean amak kezkatu rik zirudien eta gertatzen dena kontatzeko eskatu diot, ahal dudan moduan lagundu egin nahi dut ama.

Besarkatu eta, bere burua nire sorbaldan jarririk, negarrez hasi da. Amak esan didanez, niri atzo gertatutakoa buruko desoreka baten hasiera omen da. Hori zen atzo gaueko gurasoen eztabaidaren arrazoia.

Aita psikiatra da eta bere ustez egin daitekeen gauzarik onena ni sendaetxe batean sartzea da, baina amak ez du onartu nahi alaba bakar bat izan eta sendaetxe batean sartu beharra izatea.

Mututurik gelditu naiz, ez dakit zer esan.

Gaur asteazkena da, sendaetxeko ohe batean nago, oso bakarrik, bazterturik sentitzen naiz. Ama egunero etortzen da ni ikustera, baina hala ere...

Bi aste igaro dira sendaetxe honetan sartu nindutenetik. Orain dela bi aste baino makalagoa sentitzen naiz, izugarritzko alferkeria dut gainean eta amak txorakeriak bakarrik egiten eta esaten ditudala dio. Oso argaldu rik eta ahuldu rik nago, ez naiz neure buruaren jabe. Medikuek sendabiderik ez dudala diote, eta eroetxe batetara naramate.

Badakit nire aitak niregatik pena sentitzen duela ere, nahiz eta bere zintzotasunagatik ez horrelakorik azaldu.

Ama egunetik egunera ahulagoa ikusten dut, begizuloak nabari zaizkio eta neke aztarnak ditu, aurpegian batez ere.

Ez da harritzekoa, egunero ni ikustera etorri beharrak nekagarria izan behar du eta.

Gaur Urtarrilak 19a da, astelehena, nire urtebetetzea.

Aste honetan oso bisita gutxi izan ditut, ama ez da aste osoan azaldu. Atzo aita etorri zen eta ama gaixorik zegoela esan zidan.


Nire gelan nago, bapatean atea jo dute eta mediku bat sartu da bi gaixozainekin. Nire aldamenean eseri eta berri txar bat duela niretzat esan dit. Ama etorri zait burura, baina ez da posible, aitak esan zidanez ez zegoen oso gaixorik.

Nik pentsatu dudan berria eman dit sendagileak, ama hil egin da!

Nire barrenean hutsune bat nabaritu dut. Orain aita datorkit burura; zoritxar hau jasan ahal izango duela espero dut, gizon gogorra da eta.

Aita eta ni bakarrik gelditzen gara orain, baina aita bakarrik gelditzen dela esan daiteke, nik, gelditzen zaidan denbora guztian hemen egon beharko dut eta, ni bezalako beste zenbait jenderen artean. Gu gaixoak gara eta itxaropenik ez dugun gaixoak. «Gaixoak» hitza darabilt, «ero» izena baino aproposagoa iruditzen zaidalako.

Orain itxaropen bakar bat gelditzen zait: aita zoriontsu izatea desiratzen dut eta zoritxar hauek ez dezatela bere indar eta betidanik bizitzeko izan duen gar hori itzali.



Genesi

Iñaki Leturia Iurrita
Garaialde Lizeoa
URRETXU

Himalaiako mendi garaiak, laino ilunez inguraturik daude, non barnean tximista dagoen lo eta hauen magalean zabaltzen diren haranak, arrosa-zuri irisatuko hodeiez estaliak daude, loreak perlak diruditen ur tanta, ihintzez bustiak.

Ganges ibaian, ur korrontean barna, urrezko arrai misterio-
tsuak igerian eta ertzean, landare orlegi, zabalaren artean, krokodilo zaharra zelatan, bide okerra hartu duen bidaiari arrotza itxaroz.

Indostaneko basoetan, izugarritzko zuhaitz garaiak, erromes nekatuari beren itzala eskaintzeko prest, baina baita ametsetik heriotzera, bizitza ohostu diezaguketen landare pozoitsu, animalia odol egarri, ...oihaneko arriskuak ere.

Maitasuna, argitasun eta ilunpe nahaste bat da; gizakia, gezur eta gozotasuna, handitasun eta txikikeriazko amaigabeko zuloa; bizitza azkenik, urre eta burdinezko kate bat.

Mundua, izaki guztien harridurarako ezerezean biraka dabilen absurdo biziduna besterik ez da. Eta ez ezazue arrazoirik zeruan bila, han hutsa besterik ez bait dago; ez eta lurpean ere, bertan, aurrekoen idea eta pentsakizun ustelak bait daude.

Entzun beraz, munduaren sorreraren istorioa, agure arlote, behartsu honen ahotik, goiko izpirituek adierazi zutenaren arabera.

«... Brahma zirkunferentziako erdia da; beragandik sortu eta irtetzen da dena. Ez du ez hasera, ez amaierarik; ez eta edukiko ere.

Denbora eta espazioa ez ziren garaian, lainoa zuen inguruan, oraindik bere nahi eta gogoetek ernaldu gabeko lainoa, bere buruaganako behaketan murgildua bait zegoen. Baina, bere buruaz aseturik, begiak altxa eta Brahma berbera ikusi zuen, osoa, dena bait zen.

Orduan, Brahmak, lehen aldiz nahi izan zuen eta nahi horrek inguruko laino ezereza ernaldtu. Milaka eta milaka puntu argitsu sortu zen batapean, argi zatiak, disdiratsu eta alaiak; urrezko hauts honek hutsunea bete eta iluntasuna zartatu zuen; eta dardar egitean, sortzailea goraiatzeko doinu zerutarrak abestea egiteko zuten hainbat izaki azaldu ziren: aingeruak.

Izaki harrigarri hauen aurpegi zoragarriak, hegal koloredunak, jolasak, algarak, Brahmaren lehen irrifarrea sortarazi zuten eta bertatik Eden edo paradisia isuri. Eden, erreinu liluragarria, bost zirkulu, urez inguratua, elefanteek sostengatua, tenplua garaieran.

Baina... umeen jolasak haseran dibertitu eta gero aspertzen duten bezala, Brahma perfektua ere nazkatu egin zen. Eta bere zaldi zurian, laino zurien gaintetik, izar disdiratsuen artetik, laborategiko iluntasun misteriotsuan barneratu, galdu zen. Pentsa ezazue, lagunok, mundu kaskar honetako jakintsuek, liburu zahar eta puskatuen formula magiko eta aztikeriez, nola hondarra, urre eta harri bitxi bihur dezaketan edota zero zabaleko eguzki handi argitsua ilundu arazi. Asma ezazue orduan, ahalguztiduna den Brahmak egin zezakeena; imagina ezinezko konjuruak, infinito mundu berri, suzko izar erraldoiak,...

Laborategi misteriotsua, nora ez bait da inoiz kanpoko oihartzunik iristen, non ez bait da behin ere inor sartu, inori ateak ireki, Brahma boteretsuari ezik. Zer ote dago giltzak itxiriko egurrezko ate sendoaren atzean? Nork daki?

Tximiniaren abismotik hainbat margoko ke espiralak irteten dira, eta hodei zurien artean galdu. Noizbehinka suzko bolek zeru urdinaren erdian eztanda egiten dute, Eden edo paradisu guztia argiz betez. Brahma lanpetua dago; etengabe ari da likido magikoak nahasiz, bertute eta gogoetak gehituz, maitasun ugari eta sentimenduak eraginez; guzti honi, jakinmin eta pasio tanta batzu eta anbizio, apaltasun apur bat botaz, dena zoriontasunez ongi betez, ... hona hemen mundu zoriontsuen eta perfektuen esentzia, formula ezkutua.

Aldi batez, sua eta garren izpiritua sortu zuen: haizeen jaina; itsaso eta ozeanoetako nagusia eta lurpeko leze eta sumendien zaintzaileak. Ondoren, izpiritu oker eta sentimendu gaiztoak, material ezezagunez eginiko kaxa batzuetan giltzapetu zituen, inoiz irten ez zitezen eta sortu berria zuen izatearen oreka hautsi. Eta bertute, dohai, desio ezkutuen haziak ere bai.

Bitartean, aingerutxo jolastiak zai zeuden, sortzailea noiz itzuliko; algara eta kantuek Eden edo paradisuko isiltasuna eta monotonia puskatzen zuten. Nagusiaren falta somatuz, laborategi ilunaren pareta mardulak igo eta lehioetako zirriztuetatik, eskeintzen zitzaien irudi harrigarriak behatzen hasi ziren. Mundu berrien proiektuak, animalia arraroak, eta izar, ilargi izugarriak, oraindik amaitu gabeko gizonak, ... hau dena, edari sorgindu, liburu zahar horikatu, tamaina eta kolore desberdineko pote eta kaxak eta hainbat izenik gabeko nahasgai, ke eta laino artean ia ezer ikusi ezin zitekeelarik. Paretak, imagina geometriko eta formula magikoz estaliak zeuden, eta gelaren erdian, suaren gainean, ontzi handi batean, mundu zoriontsu eta perfektuen esentzia ari zen irakiten.

Brahma ahalguztiduna, apenas iristen zen alde guztietara; han mundu berriak, haruntzago izar eta eguzkiak, hemen munstro bel-durgarri edo unibertso ezezagunen bat. Sortzailearen lana oso zen zaila eta nekatua.

Kanpoan, aingeruen begiek, dena jakinminez begiratzen zuten, dena aztertu; arnasa hartzeko astirik gabe, harridura eta errespetoz, ikuskizun handi haren aurrean.

Aspertu zen Brahma sortzeaz eta atsedean hartzera joan, zaldi zuriaren gainean, hodei zurien artera. Baina burua oraindik formula eta likido misteriosuen artean zuelarik, ez zen laborategia irekirik utzi zuenaz konturatu. Bai, ordea, aingeru bihurriak; hauek, laborategia beren eskuetan ikustean, batek atea ireki, besteak barruan begiratu, hark hanka aurreratu, eta honela, hara non sartzen diren denak laborategiko isiltasunean, ke ilun artean.

Orduantxe han gertatu zena ia ezinezkoa da. Lehenik, harridura handiz gauza guztiak behatu zituzten; gero, ikutzera ausartu ziren, kontuz; eta azkenik dena nahasteari ekin zioten: nahastu, hautsi, apurtu, tokiz aldatu, lurrera bota, isuri, ... batzuk, liburuei orriak kentzen zizkieten, paper txoriak egiteko; besteek, beirazko ontzietako edukinak usaindu, dastatzen zituzten, eta ondoren parteko marrazkien kontra txikitu. Eta pasio, bertute, dohai ezkutu, sentimendu eta pentsakizun okerren kutxak lurraren kontra puskatu zituzten.

Laborategia aztoratzeaz asperturik, sortzen ikusi zituzten munduen antzeko bat egitea bururatu zitzaient aingeruei. Honela, aurkitu zituzten likido, hauts, pozo eta osagai guztiak, su gainean zegoen ontzira bota; ongia eta gaitza, maitasuna eta gorrotoa, edertasuna eta zatarkeria, bizitza eta heriotza, hotza eta beroa, mina eta alaitasunaren hazi eta ideak nahastu zituzten, inongo ordenurik gabe. Txinparta, sugar urdin-gorriek eta leherketek, barre algarak eta oihuak sortarazten zituzten aingeruengan. Elementu aurkako bilkurak, dardar arazi egiten zuen laborategia eta ortzi osoa.

Aingeruetako batek luma bat atera zuen hegaletik, eta nahasketa hartan busti ondoren, putz egin eta gure mundu kaskar hau sortu zen, une berean. Mundu formagabea, iluna, tristea, zapala, biraka zebilena, elurrezko mendi eta suzko desertuz bete, urez estalia; Jainko uste den, baina lohia besterik ez den humanitate batez populatua, heriotzaren menpe, dena deuseztatuz, eternitate egarriz. Mundu aldrebesea, xelebrea; gure mundua azken batean.

Aingeru jostalari bihurriak, hain emaitza absurdo, zentzugabe eta farregarria lortu zutela ikustean, Eden osoa dardar arazi zuen algara ikaragarri bat irten zen beren eztarrietatik.

Brahma boteretsua, hots, algara eta karraisiek esnatzean, berehala konturatu zen gertatutakoaz. Haserreak begiak gorritu zizkion odolez; ahotsak zerua zartatu zuen trumoiaren antzera eta sua zeriola, aingeru bihurrien taldea sakabanatu zuen; eta mundu zentzugabe hura deuseztatzerantz zihoala, aingeru ausart eta bihurrietariko batek honela esan zion:

—Nagusi, Jauna! Ez iezaguzu jostailua puska!

Brahma zuzena da, Jainko denez, baina ateraldi hau entzutean, begietako haserrea desagertu eta irrifarrea sortu zitzaion ezpainenetan. Lasaituz, honela esan zien aingeruei:


—Zoazte, gaizto zuzengaitzak, bihurri jostalariak; zoazte ikus ez zaitzatedan tokira, sortu duzuen tramankulu absurdoarekin. Mundu honek ezin du izan, dena ezegonkorra bait da beregan, dena da barne borroka; zoazte, zuen esku ez bait du luzarotan iraungo.

Esan zuen Brahmak; eta bihurriak, builaka eta barrezka, beren artean bultzatuz eta mundu zentzugabeari ostikoka, zeru zabalean, espazioan galdu ziren... eta ordudanik bertan dabilta, beste munduen harridura eta biztanleen gaitzerako.

Zorionez, Brahmak esan bezala, ez dago beldurgarriago eta
ikaragarriago den gauzarik umeen eskuak baino, hauetan jostai-
luak ezin bait dezake luzaroan iraun. ...»

PROSA. B maila

B.B.B.ko 1. eta 2. kurtsoa,
L.H.ko 1. gradua eta
I.E.E.ko 1. zikloa.



Gizonak egin eta apurtu zuena

Idoia Llona Ormaetxe
Lauaxeta B. Institutua
MUNGIA

New Yorken, 2150eko Urriaren 3an, 20 pertsona hil ziren eta 70 hospitalizatu zituzten, denak gaixotasun berdinagatik. Egune-ro munduko populazioaren % 2a hiltzen zen eta % 7a hospitalizatu. Honek populazioaren beherakada sakona ekarri zuen egun haietan.

Laister konturatu ziren medikuak kutsadura zela gaixotasun haren arrazoia.

Gehienbat, hiri industrializatueta gertatzen ari zen, baina laister hedatu zen mundu guztira.

Lantegiak, kotxeak, hegazkinak eta abarrek botatzen zuten keaz ingurugiroa kutsatzen joan zen astiro-astiro eta pertsona batzuk ia ezin zuten arnasarik hartu.

Arazo hau konpontzeko gobernuak erabaki bat hartu zuen: kutsadura gero eta handiagoa zela ikusten zuenez, kotxeak, hegazkinak, eta abar ahalik eta gutxien erabiltzeko agindu zuen; lantegietan, eta tximinietako keak zeramatzen gas toxikoak garbitzeko, garbigailuak jar zitzatela tximinietan eta botatzen zituzten hondakinak probetxatzeko beste gauza batzuk fabrika zitzaten, lehenengoz ondo garbituta.

Eta honela, urte bat pasatuta, kutsadurak lehen bezala jarraitzen zuen, jendeak ez zielako kasurik egiten gobernuak emandako aginduei.

Zientzigizonak gizateria salba zezakeen beste metodo batzuk ikasten hasi ziren, hauen artean, aurpegian maskarak jartzea arnasa hartzeko eta abar.

Baina astronomoak konturatu ziren planeta honen bizia ez zela mila urte baino gehiagorako eta azkena heltzen zen momentuan dena amaituko zela.

Orduan, gauza bat egin zitekeen gizateria eta munduaren zati bat salbatzeko: beste planeta batetara bizitzera joan. Baina hau ia ezinezkoa zen, zeren ezagutzen ziren planeta guztietatik batetan ere ez baitzegoen bizitzarik.

Aztertu zituzten banan-banan galaxia honetako planeta guztiak eta guztiz ezinezkoa zen beraietan gizakia bizi izatea, batetan izan ezik, Marti. Han, ura eta oxigenoa zeudela ikusi zuten, beraz, itxaropen bat bazegoen: bertara joatea bizitzera.

Baina ez zeuden ziur oraindik pertsona bat han bizitzeko gai izango zenik, eta Marti planetara joatea erabaki zuten hau egiaztatzeko.

2152ko Maiatzaren 15ean irten ziren zortzi astronauta suziri moderno batetan Martirantz. Honetarako ekipo egokia eraman zuten, bidea oso luzea izango baitzen eta han hainbat egun egongo ziren eta.

Heldu ziren ba astronautak eta ikusi zuten nola ur garbia zegoen, airean oxigenoa eta ez bakarrik hori, gure planetaren ia berdina zen; zuhaitzak, mendiak, itsasoa, eta denetarik zituen, baina ez zegoen bizitzarik, pizti arraro batzuk izan ezik, baina hauek kaltegabeak gizonentzat.

Egun batzu pasatu ondoren, itzuli ziren lurrera astronautak, berriak ekartzera. Laster jakin zituen ia mundu guztiak berri hauek; hura poza!

Orain egin behar zena lurreko bizitza guztia Martira eramatea zen, baina ez zen hain erraza. Lehenengoz, han etxeak egon behar ziren, pertsonak bizitzeko.

Orduan hasi ziren Marti planetara suzirietan tresneria eramaten, etxeak eta eraikintzak egiteko eta honela jarraitu zuten hogei urtetan tresneria eramaten. Martin mundu guztiarentzat behar ziren etxeak hasi ziren egiten, baita eskolak, lanpostuak, eta abar ere, baina guzti hau airea kutsatu barik.

Horrela urteak pasatuz, hiri txikiak eraikitzen joan ziren Martin, gure planetan kutsadurak jarraitzen zuen bitartean. Orain ez zen ia inor hiltzen kutsaduragatik, mundu guztiak zuelako bere maskara aurpegian arnasa hartzeko. Lurreko piztiak, mota bakoitzeko pare bat eramane zituzten martira, eta han askatu egin zituzten, ezin baitziren lurrean bizi aurpegiko maskara barik. Arrainak ere, espezie bakoitzekoak eramane zituzten Martiko itsasoetara.

Marti, pertsona guztiak eramateko ia prest zegoenenan, fenomeno meteorologiko batzu agertzen hasi ziren lurrean kutsaduraren eraginez, haize gogorrak, uholdeak, izozteak eta abar.

Honek adierazi nahi zuena munduaren amaiera hurbil zegoela zen, baina oraindik bostehun miloi pertsona zeuden lurrean, Martira joateko zain; mundu erdia baino apur bat gehiago bakarrik zegoen Martira joana eta. Horrela, egunero 2500 suziri irtetzen ziren martirantz, bakoitzean 500 pertsona zihoazela. Lehenengoz joan zirenak zaharrak eta umeak izan ziren, eta gero gainontzekoak.


Eguraldia gero eta txarragoa zen baina oraindik ez zituzten Martira eramane pertsona guztiak, ezinezkoa baitzen arinago eramatea.

Horrela, bost urtetan zehar jendeak Martira joaten jarraitzen zuen. Ez zen jende asko falta Martira joateko eta Lurra gero eta txartoago zegoen eguraldiaren erruz.

Mundu erdia urgaineztatuta zegoen eta Martitik begiratuta eztanda egingo zuela zirudien; hori esaten zuten behintzat zientzigizonek.

Lurrean geratzen ziren azken pertsonak Martirantz zihoazen zorionez eta heltzeko kilometro batzu geratzen zirenean Lurrak eztanda egin zuen.

«Honela gizonak, bere mundua kutsatu eta apurtu zuen». Eta Martiko bizitzak Lurrekoak baino askoz ere hobeto jarraitu zuen.



Familia baten beharra

Amaia Ormaetxea Irleta
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

Kaixo lagunak!

Ni Ane naiz, bihotza alaitasunez beterik duen 13 urtetako neskatxa bat. Nere gelako beste edozein bezalakoa naiz, baina gaur, munduko neskarik zoriontsuena.

Ezin daiteke txikia naizenik esan, ez eta garaia naizenik ere. Nire ustez, aurpegi itxusia daukat, aho handia, sudur txikia, belarriak berriz, farregarriak, hau da, neskatxa arrunt bat. Begiak orain arte ez ditut aipatu, aipamen berezia behar dutela iruditzen zaidalako. Hauek kolore iluna dute, ilun-iluna, ia-ia beltzak direla esan dezaket, baina horrez gain, oso adierazkorrak dira. Gaurdaino, nire begiek goibeltasun hunkigarria igorri dute; orain, aldiz, pozez gainezka daude. Baina tira, tira, hau esanda ere, ez duzue nire alaitasuna zenbatekoa den jakingo, horretarako, hasieratik kondatu beharko dizuet dena:

Sei edo zazpi urte nituen nire arazoaz jabetzen hasi nintzeanean, baina horrek ez du lehendik sortua ez zenik esan nahi, ez, ez, alderantziz, arazo hau aspaldidanik zetorkidan, baina orduarte ez nintzen konturatu nire munduan bizi nintzelako, haurren munduan alegia. Urte hartan aldiz, zentzutzen hasi nintzen.

Baina zertan ari naiz? Oraindik ez dizuet nire arazoa zein den esan eta. Beno, joan gaitezen harira. Horretarako nire sendia aurkeztuko dizuet:

Ni alaba bakarra naiz. Garai hartan nire gurasoekin bizi nintzen Donostiako pisu batean. Ama, etxekoandre ezin hobea nuen, ederra, alai, eskuzabala, burutsua, zuhurra, maratza eta nire lanetan izugarritzko laguntza ematen zidana gainera. Aitak ordea, bi izaera zituen: bata, bihotzbera, amoltsua, alegera, atsegina, bi hitzetan esateko, oso ona. Gauetan ostera, eta orduan zetorkigun arazoa amari eta bioi, mozkor-mozkor eginda etxeratzten zitzaigun. Une hartan, bere izaera guztiz aldatzen zen eta aita gaizto, zital, alfer, zikin eta ezindua bihurtzen zen. Hau izan zen nire haurtzaroa hondatu zuen gauza: AITA MOZKOR HUTSA IZATEA.

Gauero berandu arte egoten zen kalean, eta orain ulertu dudan bezala, ez zen lanean aritzen, amak esan ohi zidan bezala, ez, tabernaz-taberna zebilen etengabe zurrutean. Etxeratzen zenean, ohean egoten nintzenez, gehienez ez nintzen gertatutakoaz ohar-tzen, baina azkenaldi hartan lo egiteko zailtasunez nenbilenez, etxean gertatutako guztiaz konturatzen hasi nintzen. Hala ere, ezingo duzue infernu hura nolakoa zenaren susmorik eduki ere. Ideia bat egin dezazuen, azken urte hauetako gertakizunak azal niezazkizuekeela bururatu zait.

Lehen esan bezala, aitatxo beti edanda zetorren, baina bere mozkorraldiak ez ziren edonolakoak, ez zen alai eta abeslari etortzen, haserre, jeloskor, erasokor etxeratu ohi zen, beti amarekin burrukan, amatxo gaisoa etengabe astinduz. Baina nire ama sainda bat zen eta jasankortasunez eramanez, beti aita oheratzea lortzen zuen. Hala ere, egunero istiluak edukitzen genituen etxean.

Ni itzarrita nengoen udazken gau batean, aita hamaiketan iritsi zen etxera eta, ama ohetik ateratzean, garrasika hasi zitzaion:

—Zu, lotsagabe zikin hori! Badakit beste gizon batekin en-
gainatzen nauzula, ez ezazu ukatu!

Amak orduan, lasaitasunez:

—Jose, joan zaitez ohera, gaur ere mozkor-mozkor eginda
zatoz eta.

—Ez ezazu txorakeriarik esan, pare bat kopa besterik ez dut
edan! Ez atxakiarik bila eta esan iezadazu egia behingoz!

—Egia esaten ari natzaizu, zu zara nire bizitzako gizon baka-
rra, orain ohera joan zaitez.

—Ez dut logurerik!

Isilago, Jose, haurra esnatuko duzu eta.

—Niri berdin zait, neskak ere jakin dezala zein moetatuko
ama duen!

—Isildu zaitez edo bestela, alde egin ezazu hemendik! —ama
ere oihuka hasi zen irain haiek jasan ezinean.

Aitak orduan, amak esandakoa bete zuen, panpakada bat
eman, kaleratu eta zenbait egunetan ez zen itzuli.

Ni bitartean, ohean nengoen itzarrita. Amak lo nengoela
uste izan arren, nik bere negar eta zotinak entzun nitzakeen, nere
sendia hautsita zegoela konturatuz eta nik ere negarrari ekin
nion, itxaropena galduaz.

Gau hartan ez nuen bat ere lorik egin, familia arazo hura nire
buruan jira-biraka nerabilkielako. Egia ote zen aitak amari buruz
esandakoa? Ez, ez dut uste, ama ez zen horrelako emakumea, ez
zitekeen egia izan.

Hurrengo egunean, ohetik altxatu nintzenean, ezer ez nekie-
naren plantak egin nituen amaren erantzuna zein izango ote zen
jakinguraz:

—Egun on, amatxo —esan nion masailean musu bat eman ondoren.

—Egun on, Ane. Ondo lo egin al duzu?

Nik, egia esatea hoberena izango zela pentsatuz, honela erantzun nion:

—Ez, gaur nahiko gaizki egin dut lo.

—Entzun al zenuen aita noiz iritsi zen?

Nik orduan gaiez aldatu nahian:

—Non dago aitatxo? Gaur goizean ez dut ikusi.

—Ez, eta ziur aski ez duzu zenbait egunetan ikusiko ere.

—Baina itzuliko da, ez? —hau izaten zen nire kezkarik handiena.

—Bai, noski, lasai egon zaitez.

—Nora joan da ba? —irrikitan nengoen bere erantzuna entzuteko.

—Ba... um... lanera.

—Lanera? Eta lantegian egin behar al du lo?

—Ez, maitea —hitz hau bihotzeraino iritsi zitzaidan— Parisa joan behar izan du erakustazoka batera.

Nik egia esan, ezin izan nion tutik ere ulertu, baina, ama oso goibel nekusan eta galderak egiteari utzi nion lasaitasun piska bat eduki zezan.

Aita itzuli zenean, etxeko bizitzak lehen bezala jarraitu zuen. Gurasoek ez zekiten, baina, aita amari barkamena eskatzen ari zitzaiola entzun nuen gau batez. Hala ere, aitak, egin zuenaz lotsa zedin, horrela mintzatu nintzaion behin:

—Aita, zer moduz ibili zara Parisen?

—Parisen? A bai, oso ongi.

—Baina ez duzu handik ezer ekarri. Beste egun batean berriz bazoaz, oparitxo bat ekar diezaguzun eskatzera etorri naitzaizu.

—Bai, bai, barkatu ezer ekarri ez dizuedalako, hurrengoan erosiko dut pitxikeriaren bat.

Hilabete hartan bakea eta lasaitasuna izan zen etxean nagusi, aitak amari berriz mozkortuko ez zela zin egin ziolako. Aste haie-tan oso zorionsu bizi izan ginen, aita gurekin ezin hobea zelarik. Mendira, hondartzara eta beste mila lekutara egin genituen txangoak.

Baina hilabetea iragan zenean, aitak berriz ekin zion bereari. Lehenbizi ezkutuan hasi zen, baina ondoren, berandu etxeratze-ko ohitura berreskuratu zuen, geroz eta mozkorrango zetorren, eta honela, poliki-poliki, berriz ere edateari ekin zion, istilu eta burrukei hasiera emanaz.

Gabon gau batean, mozkor-mozkor iritsi zitzaigun etxera:

—Ikusi zaitut! Ikusi zaitut! —esaten zuen ama hatz erakus-leaz seinaleztatzen zuen bitartean.

—Ikusi nauzula? Non ikusi nauzu? —zioen amak harriturik.

—Bai! Zure atzetik ibili natzaizu goiz guztian eta han ikusi zaitut, etxeko atarian gizon batekin hizketan, eta piska bat geroa-go, eskaileretan gora abiatu zarete.

—«Ardo gozoak lau begi eta oinik ez» atsotitzak dioen bezala.

—Gezurti alena! Alproja halakoa!

—A bai! orain gogoratzen dut, ataltzainarekin mintzatzen aritu naiz komuneko itokinak konpon diezazkigun edo norbaiti dei egin diezaion.

—Baina, zuk zer uste duzu? Ni lelo hutsa naizela? Ez dakidala zuk beste gizon batekin engainatzen nauzula?

—Zu bai gizon papau eta tematia. Isildu zaitez!

Aitak orduan, indarrez hartu ninduen gerritik eta astinaldi bortitz bat eman ondoren, zera galde egin zidan:

—Zu, zu zara egia esan diezadakezun pertsona bakarra. Nire alaba zarela kontutan harturik, baieztatuko al zenituzke zure amaren hitzak?

—Nik... ez dakit ezer —erantzun nuen negarrari ekinaz.

—Utz ezazu haur gaisoa bakean eta eman iezadazu baimena sendagilearenera eraman zaitzadan, zerbaitetan lagun diezazudan —amak bitartean, aurpegia laztantzen zidan maitasunez, amatasunez.

—Ni ez nago gaisorik!

—Baina alkoholzalea zara eta horrek ere sendabidea dauka.

—Ez! Gezurra da! Ni ez naiz alkoholzalea, tabernak aldizkatzeten ditut bakarrik! Orain, har ezazu zure haurra eta joan zaitezte kalera! Azkar! Kalera! Ez zaituztet berriz ere ikusi nahi! Alde egin ezazue nire bistatik.

Ni, beti bezala aiton-amonen etxera joango ginelakoan nengo, burrukan aritzen zirenean amak beti, besotik heldu eta bere gurasoen etxera eramaten ninduelako. Hauek oso atseginak ziren eta asko maite ninduten, baina nik ez nuen beraiekin bizitzera joaterik nahi, nik guraso on batzuk besterik ez nituen behar hala ere, askotan oso zaila izaten da. Hura zen nire kasuan gertatzen zena. Berriz ere, laguneren aurrean lotsa, tristura, inbidia jasanez beharko nituen.

Baina ez, oraingo honetan ez zen horrela izan. Ama gogor jarri eta izugarrizko malko jarioari ekiten zion aldian, erantzun hau eman zion aitari:

—Joan zaitez zu! Zutaz nazka-nazka eginda nago! Ez zaitut gehiago ikusi nahi! Beti zure erruz jendearen aurrean lotsagarri gelditzen! Egoera hau jasangaitza da eta gure erlazioa eteteko ordua iritsi dela uste dut nik! Jo dezagun abokatuengana eta buka dezagun behingoz harreman honekin!

—Utz itzazu umekeriak alde batetara!

—Ez dira umekeriak! Zer uste duzu, txantxetan ari natzaizula? Zerk pentsa erazten dizu ezin utz zaitzakedala?

—Ondo da, geldi zaitezte zuek nire ondasun guztiekin, orain joango naizen lekuan ez dut horien beharrik eta!

Nik bihotza puskatu nuen, ezin nuen hura jasan, horrela jarraitzekotan tristuraz hil nintekeen.

—Eta zuk, entzun ondo, —orain nigan kokaturik zuen bere begirada— ez itzazu hitz hauek inoiz ahantz: ni, Jose, zure aita, zuen erruz nire burua hiltzera noa, zubitik behera botako naiz nire bizitzarekin bukatzeko eta guztiaren errudun zuek izango zarete, bai, zuek!

Ni korrika joan nintzen handik. Ezin nuen gehiago jasan. Nire aitak bere burua hil behar zuen eta dena gure erruz. Baina nik zer egin nuen zigor hura merezi izateko? Jauna, zer egin nuen gaizki? Gero, gogoratzen dudan gauza bakarra, nekeak gainditurik, lurrera erori eta konortea galdu nuela da.

Esnatzean, ohean etzanda nengoen, hura amonaren etxea zen, amak, amonak, aitonak eta txuriz jantzitako gizon batek, geroago sendagilea zela konturatu nintzen, inguratzen ninduten. Egun hartatik aurrera, bi aste iragan nituen ikastolara joan gabe. Hau ez zitzaidan bat ere axola, ni ikastolan oso gaizki nebilelako

eta nota txarrak ateratzeaz gain, beti zigortzen nindutelako. Egu-nero psikiatra batengana ninderamaten. Nire gauzak kondatzen nizkion berari; gurasoen arteko burrukak, aitak bere burua hil zuela eta nik guraso batzuen beharra nuela, aita joan zenetik, ama ere lanean aritzen zela eta ez zidala jaramonik egiten.


Ikastolara itzultzeko bezperan, amak, psikiatrak aginduta, hitzaldi bat eduki zuen nirekin. Honetan, aita bizirik zegoela uler erazi zidan, alkoholzaleentzat berezia zen klinika batean sartu zutela, baina sendagileek ziotenez, aitatxo sendatzea oso zaila izango zen eta oso gaizki ari zen zuzperraldia iragaten; horrez gain, ezin zezaketen noiz aterako zuen ziurtasunez esan, behar bada, betirako gera zitekeela han. Hitz hauek asko lasaitu ninduten eta aita berriz ikusteko itxaropena birlortu nuen.

Bost urte edo iragan dira. Gaur oso pozik nago urteak betetzen ditudalako. Jadanik badira hamahiru urte jaio nintzela. Orain, nire lagunak etxera gonbidatu eta festa eder bat antolatu dut. Poliki-poliki, nire adiskideak etxera datozkit mila opari dakartzatelarik, eta ni, alaitasunez beterik nago, ditudan lagun pila ikustean.

Festa hasi da eta etengabe farrezka ari gara. Bat batean txirrinak jo du. Nor izango da? Nik ez dut inor gehiago itxaron, ama gainera lanean ari da, agian aiton-amonak izango dira. Aterantz abiatu eta irekitzean... hau poza! Ezin nezakeen opari hobeagorik eduki! Aita da! Nire aita! Guztiz sendaturik dago eta betirako dator! Ez da gehiago joango!

Ama dendatik iritsi denean, aitak ireki dio atea, hau ikustean, amak begiak malkoz beterik, aitatzoren gainera salto egin eta inoiz ikusi dudan besarkadarik bero eta luzeena eman dio. Honela, familia bat garela erakutsi didate, bizitza berri bati eman diezaiokegula hasera, galdu ditugun urte guztiak berreskuratzen saiatuz.

Azkenik entzun duzu nire otoitza Jauna. Mila esker denagatik. Nahiko denbora kostatu zaizu arazo hau konpontzea, baina itxarroteak pena merezi izan du. Behin eta berriro eskertzen dizut, orain oso dohatsua naizelako, nik nahi nuen guztia eman didazulako, **FAMILIA ARRUNT BAT.**



Amets gaiztoa

Itziar Rios Bernaola
Arratia B. Institutua
IGORRE

Pello dut izena eta agure zahar bat naiz. Bai, agure zahar bat. Jendeak bi urtetako ume moko bat bezalaxe erabiltzen nau. Zaharra naizelako, zoratuta edo egon behar dudala pentsatzen dute, baina ez, ni oso ondo nago. hau, kontsolatzeko bakarrik kontatzen dizuet, beharbada zuek ere erotuta nagoela pentsatzen duzue, baina ez zait ardura. Zaharrak ohituta gaude, eta niri behintzat ez zait ardura.

Bi seme ditut, Mikel eta Jon. Azkena Ameriketara bizi da eta bi urtez behin bisitatzen nau. Mikel, ezkontuta dago, eta berak esaten duen legez, arazo asko ditu nire zain egoteko. Mari bere andreak, behartuta dagoelako bisitatzen nau astean behin.

Ikusi ahal duzue, bakarrik egoten naiz denbora asko. Gehiago oraindik, mozkortzen hasi nintzenetik. Mikelek ez dit begietara begiratzen. Mari, bere andreak, rehabilitatze-zentru batera eramanez ninduen. Han, hilabete oso bat egon naiz. Zentruan, ni bezalako beste agure batzuk egon dira. Zentru hura atxaki bat besterik ez da izan nitaz egun batzutan behintzat ahanzteko (egun batzutan behintzat).

Orain nire etxean nago. Bakarrik, inor molestatu barik. Ispiluan begiraten naiz, eta bertan agure zahar bat ikusten dut.

—Nor zara? —ez dut erantzunik Jaso. Berriro:

—Nor zara? —oraingoan ere ez.

Agure horren gorputz luzea eta argala lepo inguruan okertzen da. Honek, konkor antzerako bat duela pentsarazten dit.

Begiratu egin nau, bere aurpegia zuria eta argia izanik, begi triste batzuk iluntzen diote.

—Zer gertatzen zaizu? Bakarrik al zaude? Bai, hori da, bakarrik zaude. Trankil, orain nirekin egongo zara eta oso ondo igaroko dugu elkarrekin.

Nire bizitza osoa kontatu diot. Berak ez du hitzik esan, baina hala ere oso ondo konpontzen gara.

—Zer iruditu zaizu? Jendearentzat agureak trapuak bezalakoak gara. Zuk zer uste duzu?

Orain ere ez du hitzik esan.

—Katuak mihia jan dizu ala?

Azkenean haserretu egin naiz eta botila batekin ispilua apurtu dut. Zatiak, lurrean sakabanatuak gelditu dira. Zati bat hartu eta tripan sartu dut. Odola, mina, negarra.

Beste zati bat hartu eta berriro sartu dut, baina oraingoan bihotzean. Ezin dut arnasarik hartu, airea falta zait. Hiltzera noa. Jende asko poztuko da. Ez naiz berriz oztopo bat izango. Ez dut gehiago inor molestaturiko.

Une batzuk igarota...

Ez dut minik sentitzen, hilda nago, nere gorputza airea bezain arina da. Lurrean etzanda nago eta behean ispiluaren kristal zatiak daude.

Hurrengo egunean Mari etorriko da eta hilda aurkituko nau.

Baina hilda nago? Bai, hilda nagoela ziur nago, baina berbetan ari naiz, zuei gertatzen zaidana kontatzen. Ez nuen uste hil eta gero bizitza zegoenik baina bai, egia da.

Dirudienez ez da gurasoek haien seme-alabei kontatzen dieten bezala; ona bazara zerura joaten zarela eta alderantziz, gaiztoa bazara infernura joaten zarela, eta Luziferrek bere makila antzerakoarekin jo egiten zaituela. Ez, hemen ez dago ez jaungoiko ez deabrurik. Ez zeru ez infernurik. Guztiak berdin irauten du. Aldatzen zaren bakarra zu zara.

Baina, zer izan da hori? Atea jotzen ari dira. Mari izango da.

—Sartu —oihu egiten diot.

Atea jotzen jarraitzen du.

—Sartzeko esan dizut, atea zabalik dago.

Baina kolpeak jarraitzen dira. Azkenez Mari sartzen da.

—Kaixo Mari!

—Aaaaaaaaahhhhh! Marik oihu handi bat botatzen du.

—Zer gertatzen zaizu? Ah, egia da, hilda nago. Baina ez zara pozten ala? Zer gertatzen zaizu? Ni zuretzat beti oztopo bat izan naiz, zergatik orain hainbeste oihu eta negar?

—Aaahhhhhh! Marik oihuka jarraitzen du eta bapatean etxetik ihes egiten du.

Orain, Mikeli kontatuko dio berri ona eta abadearekin batera etorriko dira.

Horrela gertatzen da. Mikel eta Mari apaiz batekin datoz. Mikel hurbiltzen zaio.

—Aita, aita, zergatik? Asko laguntzen zenidan, elkarrekin ondo konpontzen ginen. Ez zait buruan sartzen zergatik suizidatu zaren. Zure bizitza ondo eramaten zenuen gurekin batera. Zergatik?

—Bizitza ondo eramaten genuela diozu? Elkarrekin ondo konpontzen ginela? Egunero laguntza eskatzen zenidala? Guzti hori gezurra da.

Kanpoan anbulantzia entzuten da. Zuriz jantzitako gizon batzuk hurbiltzen dira, eta nere gorpua kaxa batean sartzen didate. Kaxako atea zarratu eta Mikelen etxerantz abiatu gara.

Gau osoa Mikelen etxean igaro dut kaxa itsusi honen barruan. Hurrengo egunean, eleizara abiatu gara nire hileta ospatzeko. Beldurra daukat, bai, beldur handia. Kaxa oso estua da, ez du zabalkuntzarik, guztia iluna da. Nitxo batean lurperatuko naute. Zergatik? Zahartzaroa bakarrik igaro dut eta ez dut nahi hil eta geroko bizitzan ere bakarrik iraun.

Hileta ospatu eta gero hilerrira joan gara. Ez dut esperantzarik, denen moduan nitxo batean lurperatuko naute. Heldu gara, hilerrira hor dago. Hilerriko eleizatxora joan gara. Han kaxa zabaldu dute eta jende guztia begira gelditu zait. Begiak zarratuak dauzkat baina hala ere jendea ikusten dut. Pila bat jende negarrez ari dira. Haien begiak gorrituak daude. Mikel ere ikusi dut eta Jon, Jon hor dago. Negarrez ari da. Aurreratu zait eta hauxe esan dit:

—Agur aita, ba dakit zergatik suizidatu zaren eta ez dizut errua zuri botatzen.

Gero negarrez kaxa zarratu dit. Nik oihuka:

—Jon, ez, ez zarratu atea. Hemen benetan, betirako hilko naiz. Nahikoa izan dut zahartzarotan, ez duzu horrela uste? Ez dut nahi bakarrik igaro minutu bat ere. Zabaldu, mesedez!

Ez dit entzun, inork ez dit entzun. Nitxoan sartu naute eta jende guztia joan egin da. Orain hilerrian bakarrik nago. Bakarrik, bakarrik...

Zarata bat entzun dut.

—Nor da? —galdetzen dut.

—Joxe naiz.

Beldurra sentitu dut.

—Trankil egon. Ni zu bezalako gizon hila naiz. Hemengo guztiak hilda gaude, baina gure arimak bizirik iraungo du betirako. Hemen denok batera batzartzen gara, festak antolatzen ditugu ilargi beteko gauetan.

—Zein izan da zure hiltzearen arrazoia? Istripuz hil zara?

—Ez. Suizidatu egin naiz.

—Arazo asko zenuen, ala?

—Bakardade handia sentitzen nuen eta gau batez suizidatu egin nintzen.


—Hemen ez zara bakarrik sentituko. Zatoz!

Nire arima nitxo hartatik atera dut eta Joxerekin batera joan naiz. Hilerri erdira eraman nau. Bertan adin guztietako arimak zeuden, umeak, gazteak, zaharrak... Denak begira gelditu zaizkit. Borobilean eserita gaude. Joxe eseri da eta ni bere ondoran. Emakume zaharrena hurbildu zait eta klase guztietako galderak egin dizkit. Nire hiltzearen zergatia, nor naizen eta antzerakoak. Nik galdera guztiei erantzun diet. Gero bakoitza gure nitxora joan gara. Emakumeak, hamabietan irtetzeko, ilargi betea zegoela eta esan digu. Festa bat egitera goaz.

Nitxora sartu naiz. Oraindik zazpi ordu falta dira hamabiak arte. Pozik nago, ez nago bakarrik, denok elkartuta gaude. Hau

jakin banu arinago suizidatuko nintzen. Bizitza batetik beste ho-
beago batera pasatu naiz. Bigarren bizitza hau atsegin zait. Ez dut
bakardadea gehiagotan sentituko. Inoiz, inon, inola ez...

Bapatean iratzargailuaren zarata. Alde guztietara begiratu
dut. Non dago? leku hau ezaguna egiten zait. Baina, hau nire
etxea da! Orduan... dena amets bat izan da. Amaiera polita duen
ametsa. Ez zait bat ere atsegin bizirik nagoela jakitea. Hilda ja-
rraitu nahi dut beste hilekin batera. Bai, hamabietan festara joan
behar dut. Ohetik jaiki eta sukalderantz abiatu naiz, han soka bat
hartu dut. Ostera logelara joan naiz. Soka sabaian zintzilikatu
dut. Aulki bat jarri dut behean. Sokaren punta korapilo bat eman
dut eta bertan burua sartu dut, anakak aulkian nituelarik. Festara
helduko naiz, bai, han Joxerekin elkartuko naiz. Aulkia kendu
dut, arnasa falta zait. Hiltzera noa, festara helduko naiz, Joxere-
kin elkartuko naiz, ez naiz bakarrik egongo, ez, ez naiz bakarrik
egongo inoiz.



Itsaso amaigabe hartan

Nagore Urbizu Uribe
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

Egun zoragarria zen, eguzkia alai eta disdiratsu ageri zen, edozein zuhaitzetan txorien kantu eta jolas alaiak nagusi ziren, zerua ez zuen laino txiki batek ere zikintzen. Udazkena zen, baina inork ere ez zukeen esango urtaro horretan geundenik, udaberriko egun baketsu batean geundela bait zirudien. Baina, zuhaitzetako hostoak emeki-emeki erortzen ziren, lurrari kolore marroixka emanaz eta gainera noizbehinka zeru urdinean hegoalderuntz bidaiaria luze bati ekiteko prest zegoen txori taldeak, esandakoa egiaztatzen zuen.

Jendeak udazkena zela ahaztu eta arropa arinekin batera, irribarre gozo bat jantzi zuen; jende guztia zegoen oso alai. Nire baitan, ordea, negu gorriko ekaitz gogorrena sentitzen nuen. Oraindik ez dakit zergatik, edo behintzat ez dut gogoan zer gertatu zitzaidan, baina dudarik gabe badakit aldrebesaturik sumatzen nuela nire barne guztia: buruan txalaparta bateko makilak dantzan nebilzkien, belarrietan orkesta txikiak nituela iruditzen zitzaidan, sabela apo eta igel saltariz edo eta matxinsaltoa beterik banu bezala nabari nuen, gorputza, bestalde, ehun kilotako zaku patata bizkarrean eramango banu bezain ahul eta nekaturik nuen, ahoa, berriz,

Sahara basamortua bezain lehorturik... benetan, zerurako bidea ez nuen oso urruti ikusten.

Kosta zitzaidan etxera ailegatzea, baina azkenean ailegatu nintzen. Igogailuan boskarreneko atsoa topatu nuen. Etengabe aritu zitzaidan hizketan igogailua ailegatu bitartean eta baita barnean geundelarik ere, baina nik nahiko lan nuen zutik mantentzen, atso zahar hari entzuten egon gabe. Bera, konturatu zen kasurik egiten ez niola eta euskaraz jakingo ez nuela eta, berriz ere sermoi guztia gazteleraz bota zidan. Baina hala ere, nik ez nuen hitz bakar bat ere ixuri ahotik. Andreak ilea hartzen ari nintzaiola uste izan zuen eta guztiz haserraturik kriston erretolika bota zidan: «gazte hauek... lotsagabe halakoak...». Halako batean, falta zena! argia joan eta beraz, igogailua gelditu egin zen. Nahiz eta iluntasun hartan igogailu txiki eta itxi batean egoera larria izan, andrea ez zen batere bildurtu eta berearekin jarraitu zuen.

Ni, ordea, igogailua baino baltzagoa zen iluntasun batean murgildu nintzen. Iluntasun horretan bueltaka hasi eta bapatean itsaso amaigabe baten erdian aurkitu nintzen. Hasieran, ozeano handi hartan, inongo uharte edo lur arrastorik gabe, hezetasun orlegixka hark inguratzen ninduela ikustean, bildurra hezur-mamietaraino sartu zitzaidan; baina guzti hura ezin zitekeen egia izan, ziur aski atsoaren hitz jarioa entzuten nuen bitartean, lo geratuko nintzen eta orain amets zoragarri baten hasieran aurkitzen nintzen. Honela, bada, lasaitu eta ametsezko itsasoan apur bat igeri egin ondoren, esnatu eta ordurako argia itzulia izango zenez, etxera joatea erabaki nuen.

Hasi nintzen, beraz, aurrera eta atzera, buelta batera eta bestera eta igerian aritu nintzen bihotz taupadak bizkortu zitzaidan arte. Ondoren, lehen esan bezala, amets hartatik ateratzea erabaki nuen, baina nola? Ez zitzaidan burutik pasa ere egin ez nuela jakingo nola esnatu. Begiak itxi eta jarraian ireki-

tzea probatu nuen, baina kotxeetako intermitenteen antzera begiak itxi eta irekitzen bost bat minutu jardun ondoren, begiak lainotzea besterik ez nuen lortu.

Beste ideia eta irtenbiderik ez nuenez, lurra edo behintzat itsasontzi bat topatu arte igeri egitea bururatu zitzaidan. Lan honetan ari nintzela eta hasi nintzenetik bi minutu ere igaro ez zirenean, zerbait arraroa somatu nuen. Ez nekien zer, baina zerbait gertatzen zen. Halako batean konturatu nintzen, itsaso mugagabe hartan ez zela arrain bakarra ere ageri; ez haundi, ez txiki, ez polit, ez itsusi, ez arriskutsu eta... baina hauetaz aparte ez zen, ez karramarro, ez medusa eta ez algarik ere ageri. Oraindaino ez nuen horrelakorik ikusi, ezta antzekorik entzun ere. Egia esan, alde batetik guzti honek poztu egin ninduen, marrazo edo medusetan pentsatze hutsarekin odola izoztu egiten bait zitzaidan. Hala ere, gelditasun, isiltasun eta batez ere bakardade hark, asko izutzen ninduen; hain zen geldia guzti hura... hilda zegoen, bizi arrastorik ere ez zen ageri, ni nintzen bizidun bakarra.

Berriz ere bildurra gainditu ondoren, igerian hasi nintzen eta, nire burua piska bat alaitzeko asmoz, era berean abesteari ekin nion: isil-isilik dago, kaia barrenean... bi gauza hauek batera egitea gehiegizkoa gertatu zitzaidan eta ur tragoxka batzuk egin nituen. Bapatean beste gauza arraro batez konturatu nintzen: itsaso hartako ura ez zen gazia, udaberriko elur urtua bezain freskoa zen. Egarriz behintzat ez nintzen hilko, baina goseak... nork daki? ez banintzen bizkor ibiltzen, ez nuen inoiz uharterik, ez antzekorik aurkituko.

Nire buruari hitz jario gozo bat bota nion, ea horrela animatu eta indarberritzen nintzen, lurra aurkitu arte bide luzea nuela bai bait nekien.

Ordu pare bat emango nituen jo eta ke, beso bat bestearen ondoren, hanka bat bestearen ondoren, aurrera eta atzera, gora eta behera mugitzen. Ezin zitekeen asko geratu uhartetxo bat

behintzat azaltzeko, baina nere begi bistan zeruaren ispilua zirudien itsaso tzar hura besterik ez zen ageri. Non izango zuen bere amaia? agian ez zuen amaierarik izango edo unibertsoak bezala infinitoan izango ote zuen amaiera? baina nork zuen infinitora bidaiatzeko gogorik? nik ez behintzat, ez! bidaia igerian egin behar banuen, behintzat, ez nuen batere gogorik.

Ustekizun hauetan ari nintzela, ur zurrumbilo antzeko batek erakarrita edo, ez dakit zenbat kilometro joko nituen atzeruntz. Ez dakit zer arraio izango zen, baina asko kosta zitzaidan zer zen ulertzea. Jaunari esker, zurrumbilo edo zelako hark ez zuen asko iraun eta ez nintzen indar erakargarri haren ahoan galdu. Nik, ordea, Jaunari, estutasun hartatik ateratzeagatik, eskerrak eman beharrean, eskertzarreko hitz batzuekin erantzun nion. Geroago, ekintza honengatik damutzeko astia izan nuen, baina une hartan lehertzeko prest dagoen sumendi bat bezala, odola irakiten jarri zitzaidan, eta arrazoi piska bat ere banuen zeren, bi ordu baino gehiagoz hainbeste lehiarekin igeri egin ondoren, hamar zenbatu ahal izan baino lehenago, lehen baino egoera tamalgarriagoan aurkitzen nintzela pentsatzeak nire onetik ateratzen zidan. Baina ez zen hau izango ezagutu ahal izan nuen zurrumbilo bakarra. Harrez gero, behin eta berriz gertatu zitzaidan berdina eta ehun metro aurreratzea lortzen banuen, hurrengoan berrehun atzeratuko nituen. Bestalde, zurrumbilo deituriko fenomeno hau, benetazko ur zurrumbiloa ez zela pentsa arazten zidan zerbait bazegoen eta zurrumbiloa bazen, sorginkeria baten menpe zegoela dudarik ez nuen, fenomeno hau gertatzen zen bakoitzean, nire sabel barnean ere beste fenomeno bat gertatzen bait zen: ez dakit bildurra, gosea ala lehen aipatu ditudan sabel barneko igelak izango ziren errudunak, baina ura xurgatzen zuen zurrumbiloa gertatzen zen bakoitzean nire sabela krua-krua hasten zen kantari; eta hau ez zen kasualitate hutsa izango, nire sabelari ez bait zitzaion ekintza hau kantuz deskribatzea ahazten. Bestalde, ur masa gutxitzen zela zirudienean, nire begietara iritsi ahal zitekeen ur gezeko itsaso zabal

hartako azken puntuan, ke edo laino antzeko gauza txuri bat irteten zen eta bapatean desagertu egiten zen.

Oraindik ez nekien guzti hura benetan gertatzen ari zitzaidan ala amets batean murgildurik aurkitzen nintzen, baina mundu arraro hartatik irteteko biderik ez nuen inola ere aurkitzen eta gurasoak ere ordurako kezkatzen hasiak izango ziren edo agian, sarritan egin ohi nuen bezala, ezer esan gabe «boy scout»ekoekin ibilaldi batera joana izango nintzela eta lasai-lasai afaldu bitartean telebista ikusten egongo ziren, edo agian ez zen afaltzeko garaia izango, agian bazkaltzekoa edo gosaltzekoa... nik iadanik ordu eta egunen kontua galdua bait nuen. Beraz, ez nekien zenbat denbora igaro zen lehenengo aldiz mundu arraro hartan suertatu nintzenetik.

Baina mundu arraro honetan, lehen aipaturiko gauza guztiak baino arraroagoa zen zerbait bazegoen: eguzkia. Eguzkia ez zen nik lehen ezagutzen nuena bezalakoa; mundu hura lurra eguzkitik baino urutiago aurkituko zen, bere izpiek leunki laztantzen bait zuten ur gardena eta ez zuen eguzkiak berotasun handirik bidaltzen. Bestalde ez dakit ni nintzen denbora neurtzen ez nekiena ala eguzki jauna zen sudur puntan jartzen zitzaionean aurpegia azaldu eta izkutatzen zuena, izan ere, egun batzuk urteak bezain luzeak egiten zitzaizkidan eta besteak, aldiz, Agur Maria batean joaten zitzaizkidan. Gainera, egunabarrak ez zuen han ez izenik, ez izanik, han korrika eta presaka amen batean irteten bait zen eguzkia eta ez hemen bezala oso poliki eta lotsakor.

Zerua, aldiz, gaztanbera bezain txuria ageri zen.

Ingurunea begiztatzeari utzi eta berriz ere igerian hasi nintzen. Banekien luzaro baino lehen zurrunbiloak atzerantz eramango ninduela, baina horrela behintzat ez nintzen zurrunbiloaren ateetaraino helduko.

Igerian ari nintzela ur azpian begiak zabaldu nituen eta non ikusten dudan bale antzeko beltzune bat. Ez nekien bildurra ala alaitasuna sentitu. Egoera arrunt batean, bildurtzeko adina arrazoi izango nukeen, baina hainbeste denbora bizi arrastorik eskeintzen ez zuen gauzez inguraturik egon ondoren, suge edo apo nazkagarrienari ere musu handi bat emateko gai nintzen. Balea, ordea, arnasa hartzeko ere ez zen mugitzen. Pentsatzen jarrita, hura ezin zitekeen balea izan, zer izan zitekeen? urpekuntzi edo hondoratutako itsasontzi bat izango ote zen?... Nire burmuinak ez zuen hau eztabaidatzeko betarik izan, lehen jasan nituen baino gogorrago zen zurrumbilo batek eraso bait ninduen.


Oraingo honetan Jainkoaren laguntza ez zitzaidan garaiz heldu, ur zurrumbiloak orroez izugarriak botatzen bait zituen eta bazkari bezala hartu eta bere eztaurretik behera bidaia misteriotsu bati ekin nion. Zurrumbiloen oihartzunekin eta nirekin batera zurrumbiloaren jaki izan zen urarekin, kobazulo ilun hartan irristatuaz egin nuen bidaia.

Egyptoko piramideak bezain konplikatatuak ziren bideetatik nindoalarik...

Berriz ere lehen bezalako zorabioa nabaritu nuen eta ondoren iluntasun bat... jarraian astinaldi batzu. Berriz ere zurrumbiloa izango ote zen? ez, oraingo honetan nire ama zen, ikastolara joateko garaia zela eta esnatzeko.

Orduan ulertu nuen guztia. Noski! itsasoa bainuontzi bat besterik ez zen, eta balea tapoia; hau kentzean, berriz sortzen zen zurrumbiloa eta ke txuri hura... kanilatik irteten zen ur txuria zen eta eguzkia komuneko sabaian zegoen bonbila...

Guztia amets bat besterik ez da izan.



Zu zara nire bizitzaren arrazoi bakarra

Nerea Zuloaga Martinez
Gabriel Aresti B. Institutua
BILBO

—Bai Petra, horixe entzun dut gaur goizean.

—Ene Jaungoikoa! Ikusteko guztiak ez ditugu ikusi, eh?

—Gaur gauean aurkitu dute gorpua. Kornelio, jar itzazu lau kilo sagar, bai? Milesker. Ba bai, Petra, ohe gainean biluzik zegoen, eta makila bat zeukan iltzaturik. Gainera sabel gainean papertxo bat zeukan, zeinean hau jartzen zuen: «Zu zara nire bizitzaren arrazoi bakarra». Ez Kornelio, hauek ez, garestiegiak dira eta, beste hauek nahi ditut.

—Hauek Pantxike? Merkeak dira eta nahiko helduak daude.

—Beno, ongi da.

Ez dakit, Pantxike, baina herrian aspaldidanik egon den istorioa, egia izango ote den beldur naiz. Kornelio, jar iezaizkidazu niri ere halako sagarrak...

Hilketak, odola, istorio zaharrak... ez da besterik entzuten. Hilketen berriak herria punta batetik bestera zeharkatzen du. Herritarren zorumurruak kokoteraino naukate. Herri hau gorrotatzen dut. Kaferik nahi? Bai, azukrea han dago, har ezazu. Ez,

nik ez dut azukrerik hartzen, loditxo nengoela eta erregimen bat ezarri zidaten. Kontxo!, ahoa kasik kiskaldu dut! mihia sentitu ere ez dut egiten; kontuz gero, beroegia dago eta. Lehengoarekin jarraituz, ba hori, herri nazkante honetan bizi behar! Orain dela gutxi etorri naiz, eta dagoeneko kaleak infernuko bideak dirudite; airea, ezin arnasturiko hautsa eta emakume zaharrak, bi pikudun beleak. Kalea zeharkatzerakoan mila begien zentrua ikusten dut nire burua. Beraien begirada maltzurrez biluztu egiten naute, eta haiengandik ateratzen diren balak nire bihotza bost zatitan banatzen dute. Ez, eskerrik asko, ez dut erretzen. Hemengo zaharren artean istorio zahar bat kontatzen da. Baina trankil, ez da oso luzea eta. Bai, ba dakit lanera joan behar duzula, baina minutu batzuk besterik ez dizkizut lapurtuko.

Orain dela ehun bat urte, herri honetan famili behartsu bat bizi omen zen. Herriko jendeak platerkada bete indabak jaten zituen bitartean, patata ustel eta ogi puska batzuk betetzen zituzten bere egurrezko plater ehekatuak. Jantzi zahar eta urratuek babesten zituzten familia honetako bost partaideen gorputz nekatuak. Ama eta lau seme alabak, herritik kilometro batetara kokaturik zegoen etxola batetan bizi ziren. Herritarrek ez zuten familia hau begirunez ikusten. Aitak beste emakume batekin harremanak eduki zituela eta, herritik joan behar izan zuen. Familia honen izena betirako lurperaturik gelditu zen. Lau neska eta mutil bat ziren amodio frustratu horren fruitu. Mutilak hamazazpi urte zituen. Lehen bistan, mutil serio eta gogorra zirudien, baina bere ume aurpegiak bere benetako izaera salatzen zuen. Oso mutil sentikorra zen. Aspaldi horretan, imagina batek kutsatzen zuen bere sentimendua, emakume baten irudiak, hain zuzen ere. Ile beltza esku finetan nahasten zen. Jantzi berde batek jazten zuen hasieran biluzik agertzen zen gorputza. Gaztea maitemindurik zegoen. Mutilaren izena da gutxienekoa. Bueno neska! ba edozein izen jarriko diot, Martxel adibidez, ongi deritzozu? Aspaldidanik herriko neska batekin zebilen; bere izena Lore zen.

Herritarrek ez zuten amodio hau onartzen. Loreren bizitza sinplea, zaila eta ezinezkoa bihurtu zen. Herrian ez zion inork hitzik egiten eta etxean ere arazo ugari zituen. Martxel errudun sentitzen zen. Azkenean, ernetzen hasi zen maitasun horri negua iritxi zitzaion eta usteldu egin zen. Geroztik Martxelen bizitza, kolore gabeko tximeleta bat bezain tristea bihurtu zen. Lore, zorionaren atea aurkitu nahian, irteera gabeko pasadizo ilun batean sartu zen. Herrian, Lorek barnean Martxelen umea zeramalakoaren zurrumurru faltsua zabaldu zen. Herritarrak oro mindu ziren. Herriko neskatxa batek ezin zezakeen mutil horren haurrik izan.


Gauetz Loreren gurasoak kanpoan zirela aprobetxatuz, bi gazte Loreren etxera sartu ziren. Egunsenti hartan eguzkia ez zen atera, eta oilarraren kantuaoren orde z garrasiak izan ziren argitzearen lekuko. Lore han zegoen; bere ile beltzak gorpu biluziaren sustrai bezala zeuden, eta sustraien artetik ibai gorri baten hasiera somatzen zen. Bai, Loreren bihotza makil batek zeharkatzen zuen. Martxelen bizitza hauts bihurtu zen, eta ez zuen bizirik irauteko arrazoirik aurkitu. Bere burua hil egin zuen, baina hil aurretik ehun urte barru herritar guztiak hiltzeko asmoz itzuliko zela zin egin zuen. Jadanik ehun urte pasa dira, eta bere... bueno, nire promesa bete nahian itzuli naiz. Nire izena zein den? Zuk zerorrek jakin beharko zenuen, baina tira... Lanera joan aurretik har ezazu hau; zuretzat idatzi dudana esalditxo bat da: «Zu zara nire bizitzaren arazoi bakarra»

ZASSS...!

... eta makila batek bere bihotza zeharkatu zuen.

POESIA. A maila

B.B.B.ko 3. kurtsoa, UBI,
L.H.ko 2. gradua eta
I.E.E.ko 2. zikloa.



Niregandik urrun

Nekane Altuna Angiozar
Alkartasuna Lizeoa
BEASAIN

Nostalgia
eta
nostalgiaren artean,
Gaba
eta
egunsentiaren artean
zure
eta
nire bizitzaren artean
egunak ari dira iragaten
ari dira egunak iragaten bai...
eta nire bihotzaren
hain barrenean gordetzen dut beroa.
oraindik bizi ahal naitekeela
sentiarazten bait nauzu, adorez betea.
Olatuek
itsas ertza aurkitzen duten bezala,
marinelek
beren portu
eta sutondoa aurkitzen duten bezala,
nik
nire arimaren barnean
bilatu dut
aurkituko nuen esperantzarekin.
Bainan bertan
nire bakartasunarekin egin dut topo.

Niregandik

urrun zauden arren,
hain urrun niregandik,
zure begien beltz ederrean
neureen negartiak jarri nituen.
Irrifar xalo bat nahi nizun kendu
barne saminaren pausagarri.
Irrifar leun bat espero nuen
neure zaurien adabakitzat.
Deseorik sutsuenez
nirea zintudala egin nuen amets.
Iheskortasuna da, ordea, zure izatearen funtsa,
Isiltasunaren
baso luze-zabalean galdurik nago.

Denek

isiltasunean lo egiten duten baso zabalean,
tximistaren

ziztada ahulenak ere

bihotza erdibitu,

larru azala zimurtu,

esperantza urtu,

etsipena sutzen duen baso zabalean,
eguna gau beltz

eta

gaua etsai izaten den baso zabalean,

ni

hutsa naizen baso zabalean.

Isiltasunaren isiltasunak

eta

bakardadearen bakardadeak eraginda

noraezean ibili naiz,

gauaren babes-gozoan,

naturaren potzu sakonean.

Izan ere, zuek ez dakizue zer den

bakartasunaren atzaparretan

betikoan bizitzea,

tristura itsatsirik edukitzea,

bizirik izango ez duen

ilusioa bizitzea,

ezmezean bizitzea,


sentikortasuna

ehortzita edukitzea,

beharrezkoak ez garela sentitzea.

Isiltasunaren isiltasunak
eta
 bakardadearen bakardadeak eraginda,
hodeiertzik ez duen
itsaso garratzaren inguruan,
isiltasunari
 zutaz hitzegiteko eskatu diot
eta
 haizearen murmurioari
 zure izena entzun diot.

Haizea
 noraезean zebilen hegaka
eta
 nire aurpegia ikuitzean,
 azken agurraren usaina zeukan.



Merezi al du paradisuak?


Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa
Gabriel Aresti B. Institutua
BILBO

1. Ba omen ziren gure artean
behin batez hamaika ero,
Paradisuan aurkitzen zuten
lasaitasuna egunero...
Amets honetan bazenuen, bai
pertsonei papera edo,
baina ametsa amets gaiztoa
bihurtu zenuen gero
eta halako atsekaberik
sekula ez nuen espero.
2. Gogoratzen dut sarritan ere
nola gau batez kalean
sorgindurikan geratu nintzen
ikusitako zintudanean.
Hain zen liraina zure ilea
haize boladen menpean,
distiratsuak zure begiak
izar guztien artean;
zurrarak ere nabari ziren
nere bihotz barreanean.
3. Laster ginaden ene maitea
hizketaldian loturik,
hala ere zinen hitzun bakarra
ni bait nengoen muturik.
Ez zen nabari nere alboan
zure arnasa besterik,
edertasunak liluraturik
jarraitzen nuen oraindik,
baina, ordea, halabeharrak
bazuen esatekorik.

4. «Zarama hontan zergatik bizi
Paradisua izanik...»
esan zenidan behin batez, baina
ezin nuen ulertu nik.
Mundu honetan, egia esan,
badago bai ezjakinik.
Jakin nahi hura asetzearren
galdetu nizun azkenik:
zer ote dago Paradisuan
hemen bertan ez duzunik?
5. Erantzun ere egin zenidan
nola han beti zen uda,
debekatua zegoelarik
eguneroko ardura.
Askatasuna bilatzekotan
edonor Paradisura...
hunkigarria benetan ere
zure istorio hura
eta oraindik bazuen behintzat
amets on baten itxura.
6. Itxurak sarri engainatzen du
nahiz eta hori ez uste,
zure ametsa zirudienak
egin zuen horrenbeste.
Behin ez zintudan aurkitu baina
begiak gorri ta triste?
Gogora arazi zenidan nola
nonbait hamaikatxo gazte
Paradisua delako hortan
harrapaturik dituzte.

7. Jadanik guztiz argi nekusan
nondik zenbiltzan maitea,
droga deritzan hori ez ezik
hoberik bada, ordea.
Agian kendu egin zizuten
hortarako eskubidea,
horregatikan ezin da esan
hobena denik zurea;
ez ote zara gizartearen
biktima errugabea?
8. Paradisura egin nahiean
joan-etorri alaia,
baina zuzenki jarraitu gabe
bizitzak duen ibaia.
Norabidea aldatu behar
betetzeko zure nahia;
zure txalupaz egin dituzu
makina batzu bidaia,
txalupa horri iritsi zaio
hondoratzeko garaia.
9. Zure kaiola, hori besterik
eraikitzen ez zabilta,
ezinezkoa aurkitzearren
alferrik galdu bizitza.
Zure ametsa, utopia bat,
Paradisua deritza;
orain kaiolan preso zaudela
entzun, arren, nere hitza:
bila ezazu borondatean
askatasunaren giltza.

10. Txalupa baten galduz dijoa
itsasgizonaren garra,
ozenki ere entzun dezaket
gautxori baten negarra.
Erakarkorra izan zitzaizun
Paradisuko indarra,
iluntasuna izan da baina
aurkitu duzun bakarra;
ene maitea, zu zara orain
argi gabeko izarra.
11. Argi gabeko izarra eta
gainera faltan zerua,
izar gaixoa argiztatzea
orain nire helburua.
Ez zazu, beraz, amore eman
ez bait da heldu ordua;
topa dezagun amets gaiztotik
iratzartzeko modua,
gainditu behar horretarako
aurka duzun ingurua.
12. Bizitza eta heriotzaren
mugan zaude zoritxarrez,
baina gizarte aiherga honek
aterako zaitu nekez.
Horrelakoak zapaltzen ditu
laguntza eskaini ordez;
hona hemen ba, nire gogo
amorruez baina bihotzez:
gazterik inor galdu ez dadin
saia gaitezen mesedez!



Azken hitzak

Xabier Azkue Ibarbia
L.H.-ko Institutua
ZUMAIA


1. Mikel Aranzabal naiz
Deban nintzen hazi,
baina dirua lortzen
ez nuen ikasi;
bertso hauekin nahi dut
orain adierazi,
bizi izan ditudan
hamaika desgrazi.
2. Hamaika urterekin
galdu nuen ama,
andre maitagarria
baserriko dama;
aitari eta bioi
sortu zigun zama,
orain zeruetara
berekin narama.
3. Ama gehiago maite
nuen aita baino,
ondo konpondu ginen
etxean oraino;
baina zeru artean
zeuden zenbait laino,
horrela pobrezia
heldu zen gugaino.

4. Etorri zitzaizkigun
hamaika miseri,
aita lana galdurik
erori zen eri;
«Oiloaren atzetik
doaz bi azeri»,
dirua ekartzeko
esan zidan neri.
5. Beraz etxean aita
utziz erdi hila,
hortik ibili nintzen
lantxo baten bila;
baina zirudienez
ez nintzen abila,
Jangoikoaren nahia
kunplitu dadila.
6. Nire atzekaldean
utzirik herria,
lan eske bisitatu
nuen baserria;
ezetz esan ondoren
nioen «Zerria»,
hau ez zen niretzako
momentu berria.

7. Beste etxe batean
egin eskaera,
ezetz esan zidaten
nindoan behera;
sagar batzuk bazeuden
nire ezkerrean,
haraxe joan nintzen
bizpahiru jatera.
8. Aitari batzuk hartu
gose zela eta,
jabea azaldu zen
hartuz eskopeta;
esplikaziotarako
hark ez zeukan beta,
berehala hasi zen
gure lasterketa.
9. Ongi ez zettorrela
nion igarria,
ez zuen ikusiko
aurreko harria;
entzun nuen tiroa
zen izugarria,
niregana heldu zen
bere belarria.

10. Burua txikituta
odolez bularra,
zerraldo han zegoen
hura ezbeharra!
Orduan azaldu zen
emazte zaharra,
hilik aurkitu zuen
lurrean senarra.
11. Hurreratzen hasi zen
bere emaztea,
bururatu zitzaion
oihuka hastea;
jendea etorri zen
hura nahastea!
Pikutara joan zait
bizitza gaztea.
12. Sortu zen iskanbila
izan zen itzela,
guziok bisitatu
genuen gartzela;
leporatu zidaten
hiltzaile nintzela,
eta nire saria
heriotza zela.

13. Mila bederatzirehun
eta hemeretzi,
martxoaren zortzian
nik ezin dut etsi;
errugabe naizela
ez dute sinetsi,
eta esan didate
«Hilko zara etzi».
14. San Roke, San Kristobal
eta beste saildu,
mesedez entzun eta
nire aita zaindu;
«Urkamendira zoaz»
didate agindu,
gero arte Jainkoa
nireak egin du.
15. Haiek moztu nahi dute
euskaldun haritza,
baina zuhaitz onena
da bertsolaritza;
bertsoz esan nahi nuke
nire azken hitza:
Agur Euskadi eta
adio bizitza!




Infernu berotik

Ane Loidi Garitano
Almen
ESKORIATZA

1. Azken urte hauetan
nahiko gaizki nabil
gure parajeotan
ez ninteke ibil.
Elurrez leporaino
hamaika Urtarril,
negu gaizto hotz honek
basati narabil.
Banoa beste nonbait
bizitzera trankil.
2. Negutikan negura
betiko leloa,
aspertu naiz jasaten
hemengo giroa.
Agur Gipuzkoa ta
agur Nafarroa;
adio Lapurdiri,
agur Zuberora;
berdin Bizkaia eta
Araba, banoa.
3. Hemenditxik aurrera
ez dut hotzik gura
leku berora noa
ahal dudan modura;
hemen utziko ditut
hotz eta freskura.
Aurkitu dut azkenik
nik nahi nuen hura:
hotzak hemen lagata
noa infernura.

4. Satan deabruari
egin diot deitu
horrelako kasuak
hark «tratatzen» ditu.
Esan dit ez dudala
nahikoa meritu,
baina azken unean
hark ni nau onartu.
Dirudienez nitaz
egin da kupitu.
5. Sartu naiz barrura ta
epel dago aizu!
Elurte hotzen aurka
ez dut behar izu.
Bialdu nahi dut horra
hemendik abisu:
hotzak dagoen oro
hemen ez da keixu;
negua pasatzeko
nire paradisu!
6. Alde guztietara
hainbat gauza bitxi,
atzean nahiz aurrean
ez dago su gitxi.
Deabru guztiei
hamaika goraintzi
berauek dirudite
elkarren biritxi.
Hotzik sar ez dakien
atea du itxi.

7. Deabrutxo guztiak
dirade gorriak,
batera ta bestera
dabiltzan zorriak.
Mundu zabaletikan
hona igorriak.
Hemen ez du axola
beren jatorriak;
berotasun gosetan
daude etorriak.
8. Sarde bana daukate
guztiek eskuan,
itxura hauxe bera
neukan nik goguan;
buztan iletsu beltza
atzeko «lekuan»,
adar zorrotzak berriz
gorantza buruan.
Holakorik ez dago
San Pedron zeruan!
9. Berotasun honetan
oso goxo nago,
beste ezertxo baino
hau dut nik nahiago;
lan egin beharrik be
gainera ez dago.
**ONDO PASATU ETA
EGOTEKO BAPO
ZATOZTE INFERNURA!
HEMEN DA AKABO.**



Ilargi gabeko kalea

J. Luis Padrón Plazaola
Garaialde Lizeoa
URRETXU

Non dira Udaberriko goizetan,
gelako persiana irekitzerakoan,
kanela usainaz nahasturiko eguzki izpiak.

Non dira Udako egunsentietan,
zelofan laranjaz bildutako
amets guztiak.

Non dira Udazkeneko arratsetan,
zuri idatzitako poemetan
ixuritutako malko eztiak.

Non dira, zurekin paseatzeko eskubidearen truke,
Gabonetako gauetan, suaren alboan, amodioaren ondoan
emandako muxu lotsagabeak.

Non dira, ene maitea, NON?

Non, ene maitea,
non dira albal papereko espazioan,
gure gorputzen armonia perfektua zenean,
izarrek, maitasuna egitera konbidatzen gintuzten bakoitzean,
T.N.T. markako besarkadak.

Non, ene maitea,
non dira zeruko kaietan,
ilargiko kale barrenetan,
txokolatzeko pastelen artean,
guk,,, zuk, nik,,, biok, eskutik helduta
egindako amaiera gabeko bidaiak.

Non, ene maitea, NON?

Joan dira bapatean,
krabelinen jantzi majikoak;
tximeleten antzera.

Hegan.

Joan dira berehala,
xirimiriaren kantu melankolikoak;
izarrak laztantzen dituen haizearen antzera;
Ihesian.

Joan dira segituan,
zure bihotzean pausatzen ziren enarak;
hodeien antzera.

Iluntzean.

Joan dira bai, joan.

Segituan...

... Berehala...

... Bapatean...

... Joan, Amaren heriotzaren antzera,
bueltarik gabeko txartelaz.

Non dira, ene maitea, NON?

Edertasuna, zugatik da ederra.

Larrosak, zugatik dira larrosak.

Urak, zugatik dira urak.

Aideak, zugatik dira aideak.

Lurrak, zugatik dira lurrak.

Suak, zugatik dira suak.

Edertasuna, larrosak, urak, aideak,

lurrak, suak,... zugatik,

zugatik dira, baikorrak, gorriak,

bustiak, indartsuak, zabalak, beroak.

Zugatik, ene maitea, Zugatik.

Non dira, ene maitea, NON?

Zure begiek dirade, ene maitea, nere begiradaren aspirinak.
Zure ahoa, ene maitea, basamortu bateko iturria.
Zure belarriak dirade, ene maitea, nere muxuen kabia.
Zure sudurra, ene maitea, nere haginkaden mentazko txiklea.
Zure bularrak dirade, ene maitea, nere negarraren burkoak.
Zure sabela, ene maitea, tulipanezko hondartza.
Zure sexua, ene maitea, nere zorioneko lorategia.
Zure bernak dirade, ene maitea, nere bihotzeko taupadak.
Zure eskuak, ene maitea, nere zugarako maitasunaren esku-
-burdinak.
Zure irribarrea, ene maitea, tutti-frutizko ilargia.
Zure ilea, ene maitea, nere gauen izara.
Zure ahotsa, ene maitea, nere ametsen soinua.
Zure usaina, ene maitea, nere gosearen janari.
Zure gorputza, ene maitea, zure gorputza
nere gorputzaren bigarren azala.

Baina, ene maite orain non dira?
Non dira, ene maitea, NON?

Non dira
udaberriko goizetan,
udako egunsentietan,
udazkeneko arratsetan,
gabonetako gauetan,
euria bezain garden,
erreka bezain alai
ziren basamarrubizko garaiak.

Non, ene maitea, NON?

Joan dira, joan.

Segituan

Eta berehala

Eta bapatean...

Joan dira, ene maitea, joan.

Hegan

Eta ihesian

Eta iluntzean...

Zu gabe, orain, ene maitea,

naiz gaixotzen,

naiz itotzen,

naiz bakardadean hiltzen.

Zu gabe, ene maitea,

haizea bezain bilutsik,

basoa bezain tristea,

uso zuria bezain bakarrik,

naiz kontsumitzen.

Zu gabe, ene maitea,

heriotzaren izarak estaltzen du gauero

nera ohea.

Zu gabe, ene maitea,

negarraren azkazalek laztantzen

naute egunero.

Zu gabe, ene maitea,

hotzaz dardarez, erdi hila,

igarotzen ditut, egunak,

orduak, minutuak, segunduak,

segundu kubikoak.

Triki, Traka; Triki, Traka.
Banoa, ene maitea, banoa atzerrira,
lokatzetan murgildurik,
hotzak bere kristalez zauritzen nauela,
maletak bakardadez beterik.
Triki, Traka; Triki, Traka.
Karamelozko gaueko freskotasuna
ez da ia freskotasuna, izotza baizik.
Menbrilozko egunen alaitasuna
ez da ia alaitasuna, ez da tristura besterik,...

... Eta negar egiten dut.
Lamiarik gabeko ibaiak bezala,
negar egiten dut.
Hondartzan galdu den Neskabila bezala,
negar egiten dut.
Ilargi gabeko kalea bezala,
negar egiten dut,...

... Eta triste nago.
Inspiraziorik gabeko Poeta bezain
triste.
Larrosarik gabeko Lorategia bezain
triste.

... Eta banoa, ene maitea, banoa atzerrira.
Banoa, ene maitea, banoa.
Tristuraz beterik.

 Minez bildurik.


 Melankoliaz blaiturik.

Agur, ene maitea, Agur.
Agur, Agur, ene maitea...

 ... Agur.

POESIA. B maila

B.B.B.ko 1. eta 2. kurtsoa,
L.H.ko 1. gradua eta
I.E.E.ko 1. zikloa.



Xirularen azken notak
Ez naiz itzuliko

Nerea Zuloaga Martinez
Gabriel Aresti B. Institutua
BILBO

Xirularen azken notak

Ni ardi,
zu nire artzai.
Ni ibiltari,
zu nire gidari.
Ni uso,
zu nire zeru.

Bien gogoz,
bien eskuz,
murraila sendo bat
eraiki dugu.
Begiak ditut itsu,
ez bait dute
zure begirik ikusten.
Belarriak ditut gor,
ez bait dute zure
hitz gozorik entzuten.
Bihotza daukat gaixo
ez bait du
zure maitasunik sentitzen.

Ardiak alde egin du,
ez da otsoaren beldur,
nahiz eta babesik eduki ez,
nahiz eta artzaiaren
xirularen soinurik entzun ez,
ardia ez da otsoaren beldur.


Bide ertzeko ibiltaria
hantxe dago, oraindik ere
ernai, zuhur, zogi,
bere oin biluzietan nabari da
ibilitako bide luzea,
ibilitako bide nekea.

Usoak hertsirik ditu hegalak,
oro ditu makalak,
ez du zerua malkoz bustiko,
ez eta anitz margoz pintatuko,
baina oraindik ere
ixilean laztantzen ditu
bere luma fin eta leunak.

Egunen batean
agian,
nork daki?
ardiak xirula horren
doinu tristea
somatuko du.
Ibiltariak
gidaria aurkituko du
eta besarkada batez
bien arteko desberdintasunak
bide bazterrean utziko dituzte.
Eta usoak
zerua lekukotzat harturik
lurra gobernatuko du
bere hegalen zabaltze hutsez.

Ez naiz itzuliko

Dagoeneko berandu da.
Ez negarrik egin,
zure aurpegia
malkoz bete ez dadin.
Ametsak ziren
nire buruaren jabe;
orain hutsik daukat,
ilusiorik gabe.
Nor naizen ere ez dakit,
hilko banintz hobe.
Bizitza honetan
ez dut lekurik.
Nire bizitzak
ez du zentzurik.
Alferrikakoak dira
zure malkoak,
zure gogoak.
Hau irakurtzean
ni urrun egongo naiz.
Bidai honekin
amets egin dut maiz.
Ez naiz itzuliko,
baina nire gorpua
hemen dut utziko.
Bai, dagoeneko berandu da.
Ez negarrik egin,
zure aurpegia
malkoz bete ez dadin.



Gazte pentsamenduak

Eriz Zumarraga Azkarate
Alkartasuna Lizeoa
BEASAIN

Begirada altxatzen dut,
euri tantak jolasean ari dira kalean,
beira zikin baten atzean nago.
Gelako builaren artean
oihu sakon bat entzuten dut,
pentsamendu traskil batean murgildurik nagoen momentuan,
kristal apurtuaren sakonean
nere musua ikusi dut zailki,
irakaslearen abots urratuak
goiz hotzeko isiltasun mingotsa
apurtzen duen instant berean,
oroitzapenez betetako liburu zahar bat
iriki dut biziki.

Egunero zatiz-zati,
pusketaz-pusketa
jaten gaituen
monotonia,
inoiz aldatzen ez den
bizitza traskil honek
lagun duen
monotonia,
gizarte penagarri honetan
egunez-egun,
orduz-ordu,
minutuz-minutu
irensten gaituen
monotonia,
itotzen nauen,
larritzen nauen
monotonia

NOIZ HILKO OTE DA?

Sustrairik eta sentimenturik gabe,
zimentu artean bizi den,
gizarte ustela,
monotonia ilun eta sakon batean
murgildurik,
askatasunik ez duen
gizarte ustela,
maitasunik gabe
eta faltsukeriaz gaisotuta dagoen
gizarte ustela,
sasiabertzalez
inbadituta dagoen
gizarte ustela

EZ DUT NAHI.

Hiri handietako kale zikinen artean,
taberna ketsuen artean,
lantegi tristen artean,
mendi mutuen artean,
itsaso lapurtu eta jipoituaren artean,
bizia hiltzen ari da eta pertsona berarekin.

Eta hitz gaiso hauek
lerro zuri hauetan oheratzen ditudanean,
eta esaldi zentzugabeok
paper lasaigarri honetan itotzen ditudanean,
eta gela txuri honetako lau paretek
atxilotzen nautenean,
eta giro astun honetan
murgiltzen naizen
bitartean,
bakarrik aurkitzen naiz.

Eta haiek,
jo, apurtu, hautsi,
suntsitu, desegin, txikitu,
atxilotu, torturatu, erahil,
erantzun, agindu, inposatu,
hartu, kendu, lapurtu,
eutsi, lotu, kateatu.
Eta guk, bitartean
ixilik eta geldi bagaude,
galdu dugu.

Haize berritsu, haize jakintsu
kale artean zabilta,
bazterrez-bazter
dena arakatu nahian,
guztia jakin duzu.
Entzun al duzu txiroaren garraisia,
txoriaren abesti samindua,
maiteminduaren olerkia
edo eta euskararen kexua?
Zoaz! Mendi arteko sakaneko belarrari
belarri ondoan kontatzera,
handik ez dela irtengo inora.
Zoaz! Sutondoan eseririk dagoen hurrari
ipuin zaharrak zurrumurtzera.
Zoaz! Pago zaharraren ondora.
Horrenbeste dakizu haize ama,
lotsarik gabeko zure esaera zaharra aditu dut,
baina ez dut ulertu.



1008154
Irakaskuntza ertainetako Urrezko Liburu Lehiaketa 1987

EUSKO JAURLARITZA
ARGITALPEN – ZERBITZU
NAGUSIA

Salneurria: 315 pta.
(BEZ barne)